



Umeen iritziak, desirak eta interesak ezagutzeko Plentzia Amesten egitasmoa garatu dute. ▶9

Ander Pardoren *Overrum* film laburra estreinatuko dute Plentzian, bariku honetan, hilaren 17an. Zinemagileak eman dizkigu horren xehetasunak. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



110. zenbakia

2017ko
azaroaren 16tik
azaroaren 22ra arte

Suizidioa, isilpeko gaitza

Horren gainean berba egiten ez den arren, urtean 800.000 pertsonak egiten dute euren buruaz beste munduan.

▶22-23

«Euskararen aldekotasuna praktikan ipini nahi dugu»



Kike Amonarriz Gorria
soziolinguistak euskaldunen aktibazioaren gaineko berbaldia eskainiko du martitzenean, Areetako elkartegian. ▶16-17

HERRIZ HERRI LEMOIZ

Nuklearra, arrain-haztegi

Lemoizko zentral nuklearrean arrain-haztegi bat egiteko proiektua aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak joan den astean. Egitasmo horren aurkako aldeak ere agertu dira. ▶8



hiruka.eus

Azaroaren 17an badugu zer ospatu!

ADI! EGUN HORRETAN BAZKIDETU...
ETA SARI BEREZIAK LORTU!



Pintxoez eta giro euskaldunaz gozatzeko ibilbideak, prest

GetxOnegin pintxo-lehiaketaren VIII. edizioa egingo dute azaroaren 18an, 19an, 25ean eta 26an. Denera, 55 establezimenduk osatuko dute ibilbide gastronomikoa.

Ostalaritzako 55 establezimenduk parte hartuko dute aurten GetxOnegin pintxo-lehiaketaren VIII. ekitaldian. Azaroaren azkeneko aste-akabu bietan izango da txapelketa gastronomikoa. Establezimendu bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du, 1 euroko prezioan; gainera, horren izenak euskarazkoa izan beharko du. Pintxo denak hartuko dituen txartelak argitaratuko ditu Udalak; horietan, pintxo bakoitza egitean erabili diren osagaiak agertuko dira, bat izan ezik, berori sekretua izango delako. Hala, publikoak hori zein den igarri eta horren gaineko euskarazko testua idatzi ahal izango du. Horiek denak *WhatsApp* edo telefono bidez bidali beharko dituzte, lehiaketan parte hartzeko. Pintxoaren egitea librea izango da, tradizionala izan

ezik; azken horrek gilda modukoa izan beharko du eta. Aste-akabu bietan, kalez kale, giro euskalduna areagotzen laguntzeko, hainbat talde ibiliko dira, berbarako Argia Kantari Kanta, Itxarkantu eta Musikalia. Modu berean, ostalariei *Spotify*ko musika-zerrenda emango zaie. Lehiaketaren epaimahai-kideak parte hartzen duten 55 establezimenduetatik pasako dira eta aintzat hartuko ditu pintxoaren zaporea, originaltasuna eta euskararen erabilera. Ostean, puntuazio altuena lortzen duten bost pintxo finalistak izendatuko ditu, eta horiek pintxoa zuzenean egin beharko dute berriro, abenduaren 4an, Fadurako Ostalaritza Eskolan. Bertan, izen handiko sukaldari batek aukeratu-ko du pintxo irabazlea, eta kultur alorreko eragile batek, testu hoberena. ◀

Parte hartzeko: 683 456 534



Aurtengo pintxo tradizionala gilda modukoa izango da.



EUSKARAK 365 EGUN

EUSKAHALDUNTZEKO BIDERIK BADUGU GETXON?

Kike Amonarrizekin egin dugun bidez eta egiteko dugunaz hausnartuko dugu. Aktibatze prest?

Azaroak 21, asteartea 19:00, Getxoko elkartegian Ogoño kalea 1 - Areeta





portu zaharra bar

Portu Zaharra Kalea 35
48991 Algorta-Getxo
Tel. 94 468 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



TAPA TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMA



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA • 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!



San Nikolas IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala
Euskalduna
Plurala

Demokratikoa
Autonomoa
Hezkuntza eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus



Barrura begira

BEA
SEVER EGAÑA
Chrysallis EHko kidea

Oraindik ere gurean badira agotak

Bozate auzoan, Nafarroako Arizkun herrian, agotak bizi ziren. Agotak mendetan zehar bazter-tuta izan ziren, iraindu egiten zituzten eta haiei buruzko gezur ugari zabaldu ziren. Eta Arizkun-en bildu ginen, hain zuzen ere, Chrysallis EH elkarteak 100 lagun inguru iragan irailean, aste-buru pasa.

Gure artean transexualitate egoeran dauden hainbat neska-mutil zeuden. Pertsona transexualak ere mendetan zehar bazter-tuta izan dira, iraindu egin dituzte eta haiei buruzko gezur ugari zabaldu dira. Oraindik ere gure artean zeudenetatik zenbaitek bazterketa hori jasan behar dute. Baina zerbait magikoa sortu zen asteburu horretan. Neska-mutilak pozik ibili ziren jolasean, *ligoteoan*, dantzaz, beldurrezko istorioak kontatzen, barreak egiten... neska-mutil guztiek egiten dutena egin zuten, onartuta eta eroso sentitu zirelako. Astelehenean benetako mundura itzuli ziren eta Asierrek betiko lez bularrak zintabatez estutu zituen azalpenik eman behar ez izateko; Leirek gelakideen barreak jasan behar izan zituen irakasle berri batek zerrendetan zetoarren bere antzinako izenez deitu zuenean; Oier txikiari eskolako haur talde batek neska zela esan zion hamai-kagarrenez... Guk ez ditugu gure haurrak ghetto batean hazi nahi, ez dugu beste Bozate bat nahi. Guk munduan nahi ditugu libre, direna izateko aske. Horregatik Anaren aitak lege berriaren idazketa taldean eman ditu orduak, Iñakiren amak hitzaldiak eskaintzen ditu han eta hemen, Mikele gazteak bere arima komunikabideen aurrean bilutzen du behin eta berri, eta bakoitzak bere neurrian ahal dugun guztia egiten dugu Bozate gehiagorik ez daitezen. Lagun gaitzazu mezua zabaltzen: mundua aniztasuna da. ◀

Getxo

Etxebizitzari lotutako topaketak, egunotan

Getxoko Etxebizitza Topaketak egingo ditu EH Bilduk azaroaren 16an, 17an eta 18an.

Eguenetik zapatura bitartean izango dira EH Bilduk antolatutako Etxebizitza Topaketak. Horietan, «etxebizitzaren gaineko problematikari aurre egiteko dauden askotariko ereduak eta politikak» ipiniko dituzte mahaigainean. Hala, topaketa horietan, hainbat eredu ezagutu ahal izango dira, beste leku batzuetan garatzen dabilenak, esaterako Erreterian, Gasteizen, Bilbon, Durangon eta Bartzelonan. Egun bakoitzean gai bana jorratuko dute: egunean, etxebizitza eta gazteak; barikuan, etxebizitza ereduak; zapatuan, etxebizitza politikak. ◀

Egitaraua

Azaroak 16, eguna

18:00 Etxebizitza eta gazteak, Algortako San Nikolas plazako frontoian. Itzurbaltzeta/Romoko eta Algortako gazteen testigantzak, Gasteizko Gazte Emantzipazio Sarearen proiektua eta Durangoko «Zabalduko ditugu» mugimendua.

Azaroak 17, barikua

18:00 Etxebizitza ereduak, Algortako Villamonteko kultur etxean. Etxebizitza kolaboratiboak, EHU eta Bilboko Udalaren arteko gazte solidarioentzako etxebizitza programa eta Errealeor.

Azaroak 18, zapatua

10:00 Etxebizitza politikak, Itzurbaltzeta/Romoko Nagusien etxean. Bartzelonako esperientzia eta etxebizitza politikak; Erreterian udalaren prozesua; eta Etxebizitza Legeak ematen dituen aukerak aztertzeke tartea.

Garapen iraunkorraren aldeko laguntzak emango ditu Udalak

Getxoko Udalak bere aurrekontuaren % 0,7a zuzenduko du Garapeneko Lankidetzako Sailera, bigarren urtez jarraian. Zenbateko hori 600.770 eurokoa da, hain zuzen ere. Hala, 2016/2019ko Legealdi Planak «aurreikusitakoak beteko du Udalak, 49 ekintza adierazgarri garatzeko diru-laguntzen bitartez». Horrela, Getxok «bere konpromiso solidarioa sendotzen du Lan-

kidetzarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuen aldeko lanildoarekin, hainbat jardueraren bitartez; horien artean, diru-laguntzen deialdiarekin, sentsibilizazio lanarekin, aurtun 20 urte bete dituen Getxotik Mundura Mundutik Getxora ospatzearekin, eta lan koordinatuekin, besteak beste», azaldu du Irantzu Uriartek, Garapeneko Lankidetzako zinegotziak. ◀

TAOko makina automatikoetan aldaketak egin dira

Getxoko araututako aparkatze-zerbitzuaren (TAO) emakida duen EYSA enpresak makina automatikoetako hainbat elementu eguneratu eta hobetu ditu, baita zerbitzua kudeatzeko softwarearenak ere. Hala, kreditu- eta zordunketa-txartelakaz egindako ordainketak denbora errealean gauzatu-ko dira, iruzurrak baztertzeko asmoz. Contactless sistema ere ipini da; banku-sistema horren bitartez kreditu- eta zordunketa-txartelakaz ordain daiteke txartela makinara hurreratze hutsagaz. Gainera, aurreordainketako txartelek ordainketa birtuala izango dute. ◀

Eguneko Arreta Zerbitzua martxan ipini dute Getxon

Jesusen Bihotzaren udal-egoitzan jardunean ipini du Getxoko Udalak pertsona nagusientzako Eguneko Arreta Zerbitzua. 1. mailako mendekotasun egoeran (Foru Aldundiak egiaztatuta) dauden 65 urteko edo gehiagoko pertsonentzako zerbitzua da, eta zaharren udal-egoitzan eskainiko dute, 11:15etik 14:45era. Gainera, gura duenak erresidentzian bertan bazkaltzea aukeratu izango du. Horren kostua udal-egoitzaren Egote eta Arreta Tasaren zerga arautegiaren arabera izango da, eta erabiltzaileek ordainduko dute, hori zehazten denean. ◀

info+: www.hiruka.eus/getxo



Oroimenaren Eguna izan dela eta,

indar polizialek hildako hiru biktimari gorazarre egin zien Getxoko Udalak, joan den hilaren 10ean. Omendutako biktima horiek honako hauek dira: Félix Arnaiz Maeso, Felicitas María Alexandra Lackett eta Alfredo San Sebastián Zaldívar. Udalak azaldu duenez, gorazarre egindako biktimak udalerritik kanpo hildako Getxoko bizilagunak ziren, edo bertan hil zituzten beste herri batzuetakoak. Bere aldetik, PPK «terrorismoaren biktima denei» omenaldia egin zien udaletxetik metro gutxira, San Inazio elizaren ondoko monumentuan.

Getxo

Tosu, Estrasburgora

Ibarbengoako parkinga Estrasburgora heldu da, obrak hasteko izapideen eta protesten artean.

Ehunka lagun elkartu ziren joan den zapatuan Ibarbengoako parkingaren aurka Tosu Betirako asanbladak deitutako manifestaziora. «Askotari-ko jendea» batu izana nabarmendu dute antolatzaileek. Izan ere, Hezeta-suna, Itzubaltzeta/Romo, Algorta eta Getxo auzo eta herrietatik hainbat jende abiatu zen; bakoitzak «Udalaren inposizio baten aurkako aldarrikapen propioa» izan zuen. Aurreko egunean, Xabier Benito Europar Legebiltzarreko kide itzubaltzetarrak jakinarazi zuen Europako Batzordeari galdera bat egin diola Ibarbengoako aparkalekuaren



Benitok uste du erantzuna «laster» helduko dela.

gainean. Beren-beregi, Ahal Duguko eurolegebiltzarkideak jakin gura du ea obren ingurumen-inpaktuaren gaineko txostena eskatu duen Europar Batzordeak, lanak hasi aurretik. Benitok azaldu duenez, parkingaren behe-

ko aldean, Getxo-Bergara akuiferoa dago. Azkenik, Ibarbengoako obrak berrabiatzeko segurtasun-hesi berria ipini gura du Eusko Jaurlaritzak Tosu landan. Instalazio hori esleitzeko izapide administratiboak egiten dabil. ◀

Getxo Antzokiko aparkalekua zabaltzea gura dute popularrek

Getxoko PPK eskatu du Getxo Antzokiko parkingaren «premiatzko irekiera». «Ohiz kanpoko» neurri horren helburua litzateke «ordezkatzeko behin-behinean galdu diren aparkalekuak, Algortako erdigunean egiten dabilzan obren eraginez». Eduardo Andrade bozeramale popularrak salatutakoaren arabera, autoak uzteko hoguei leku kendu dituzte. Bere ustean, «logikoena zen aldeberean bi obrak ez egitea», hau da, Algortako etorbideko eta Salsiduko errotondako beharrak. Izan ere, Andradek nabarmendu duenez, lan horiek bultzatu dituzte gune bietako auzokideak Algortako metrogeltokiaren inguruetan aparkatzen ahalegintzera, erdigunea «erabat bete arte». «Lanetako gaia daborduko ezin denez konpondu, alkateari eskatu diogu Getxo Antzokiko parkinga zabaltzea», adierazi du. ◀

Getxoko Manga Jaialdia

Festival Manga de Getxo 2017

Azaroak 25-26 Noviembre

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
(BIZKAIA)

ORDUTEGIA / HORARIO:
11:00 - 14.30 • 17:00 - 21:00

SARRERA/ENTRADA: 3€

Erendio



Etorkizunean, lotuta egongo dira HAZ bulegoa, liburutegia, ludoteka eta KZgunea.

Herritarrentzako bulegoa, amaituta

Altzagako liburutegia abenduan zabalduko dute, azken lanak amaitzeko hilabete gehiago behar izango baitute.

Protokolo-inaugurazioa egin zuten Udal Gobernuako kideek joan den barikuan. Alde bate-tik, Altzagako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bulegoa aurkeztu zuten jendaurrean. Beste aldetik, bisita egin zuten hainbat urteren ostean Antonio Trueba kalera bueltatu den Udal Liburutegiaren lanetara. HAZ bulegoa, joan den astelehe-

nean zabaltzekoa zen. Bertan, arreta integrala eman gura diete herritarrei, «leihatila bakarreko ereduari jarraiki», Joseba Goikouria alkateak azaldu zuenez. Bestalde, Altzagako liburutegia abenduan zabalduko dela iragarri zuten Arrizen Monasterio Kultura zinegotziak. 21.000 liburu eskainiko dituzte zabaltze-egunean eta 50.000 liburu gehiago, bigarren fase batean. ◀

Erandioztarren Lehian 21 talde dabiltza aurten norgehiagoka

Iaz izandako arrakasta dela eta, aurten ere Erandioztarren Lehia antolatu du Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak. Lehiaketa horren bigarren edizioan izena eman dute dozenaka ikaslek, denera 21 bikotek, hirukotek edo laukotek. Parte hartzaileek Internet eta telefono mugikor bidezko lau proba «erraz eta dibertigarri» gainditu beharko dituzte, Euskara Zerbitzuko

teknikariak azaldu dutenez. Lau proben ostean puntu gehien batutako taldeak 400 euroko bonu-saria eta bere ikasgelako kideentzako abentura-irteera bat irabaziko du. Jokoa datorren abenduaren 20an amaituko da, Josu Murueta kultur etxean. Bertan, parte-hartzaile denek amaierako festaz gozatu ahal izango dute. ◀

info+: Erandioztarronlehia.eus

ArgIHizkiak ikusteko aukera egongo da Astrabuduan

ArgIHizkiak argazkietan oinarritutako testu laburren VI. lehiaketaren erakusketa ikusteko aukera egongo da hilaren 20tik abenduaren 1era, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak antolatutako lehiaketan parte hartu duten Uribe Kostako 10 argazkilariren lanak eta horietan oinarritutako testu irabazleak ditu osagaitzat erakusketak. Gura duenak astegunetan izango du bertara hurreratzeko aukera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. ◀

info+: Argihizkiak.eus

AKT gimnasioak bullyngaren aurkako berbaldia emango du

Bariku honetan, hilak 17, AKT Astrabuduko Kick Boxing Taldeak bullyngaren edo jazarpenaren inguruko berbaldia eskainiko du, gimnasioan bertan. Klubak jakinarazi duenez, Iñaki Zubizarreta saskibaloijokalaria ohia izango da gaia jorratuko duen aditua, arrastiko 19:30ean. AKTren iritziz, Zubizarreta «pertsona handia da, tamainaz eta gizon gisa». Klubak berbaldira gonbidatu ditu gimnasioko ikasleak eta interesa duten ume eta guraso denak ere bai: «interesgarria izango da gai horren zuzeneko albisteak izatea, oso zabaldua baitago ikastetxeetan, lan-zentroetan eta abarretan». ◀

Kiroldegietan grebari ekin diote beharginek

Lan-hitzarmena hobetu gura dute Bi Sport enpresako langileek. Udal-beharginak ere, protestan.

Joan den barikuan greba mugagabea hasi zuten Altzagako eta Astrabuduko udal-kiroldegietako langile gehienek. Bi Sport enpresa pribatuko 27 behargin dira; sozietate horrek instalazioak kudeatzeko esleipena irabazi zuen. Dena den, kiroldegiak zabalik daude, atezainak udal-langileak direlako. Bi Sporten langileak zenbait alditan ahalegindu dira negoziatzeko, «baina ez dugu erantzunik izan», azaldu dutenez. Lan-hitzarmen propio bat eskatu dute, honako baldintza hauek: urteko ordu-kopurua 1.710etik 1.592ra jaistea, KPlaren gaineko soldata-igoera, jarduera-plusa, eta dieten bidezko kalte-ordainak txanda



Barikuan flashmoba egingo dute Jado kalean.

bikoitzak egiten dituzten beharginentzat. Grebalariek hainbat protesta eta jarduera antolatu dituzte. Erandioko Udala prest agertu da bitartekari izateko. Bestalde, udal-langileen ELA, LAB eta UGT sindikatuetakordezkariek salatu egin dute EAJk eta PSE-EEk «sistematikoki ez dutela Udalhitz hitzarmena betetzen». Udal Gobernuak ez du baloraziorik egin gura izan. ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

Algorta

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hertz-Klinika Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA • 94 430 76 96

GURE ETXEA taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

GAVRKO 1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Leioa

Tranbiaren gainean, hausnarrean

Bizilagunek eta merkatariek dituzten aurkako iritziak entzun ostean, egitasmoaren gainean «hausnarketa egitea» erabaki dute, Mari Carmen Urbieta alkateak dioenez.



Amaitzear daude Sabino Arana kaleko obrak; bertatik igaro beharko luke tranbiak.

U ne honetan, unibertsitatera helduko litzatekeen tranbia egiteko proiektuaren gainean «gogoeta egiten» da biltzala aitortu du Leioako alkateak, Tele7 hedabidean egindako elkarrizketan. Izan ere, auzokide eta merkataritatuaren aldetik egitasmo horren kontrako jarrera «sumatu» dute agintari leioaztarrek. Amaitzear daude Sabino Arana kalea urbanizatzeko obrak; bertatik igaro beharko luke tranbiak. Urbietaren berbetan, orain garraio-bide hori abian ipintzeko proiektuari «azken ukituak ematen» dabil Leioako Udala, Eusko Jaurlaritzagaz elkarlanean. Hala ere, Sabino Arana kaleko auzokideakaz eta merkataria-az izandako batzarretan, horietako askok tranbia «mehatxutzat» jotzen dutela esan du alkateak. «Kale horrek oinezkoentzat izan beharko lukeela argi daukagu Udaleko alderdi po-

litiko gehienok; hori horrela izanda, tranbiak segurtasun-arazoak ekarriko lituzkeela uste dute leioaztar askok. Gainera, kalea astialdiaz gozatzeko aprobetxatu beharko litzatekeela uste dute bizilagunek eta saltzaileek», azaldu du agintariak. Urbietaren arabera, «horrek denak gelditzera behartu gaitu, jendeari egitasmoa kaltegarria ez dela ikustarazten saiatzeko, edo beste aukera batzuk aztertzeko». Urteak da-roatza proiektuak mahaigainean; hala ere, Eusko Jaurlaritzak 2016ko maiatzaren 31n eman zion oniritzia ETS Euskal Trenbide Sarearen eta Leioako Udalaren arteko elkarlanari; Sabino Arana kalea konpondu ostean, tranbia ipintzeko lanak egiteko. Baina, «bizilagunek duten aurkako iritzia ostean», garraio-bide hori alde batera utzi eta egon daitezkeen beste aukeren gainean «hausnarketa egiteko» prest agertu da Urbieta. ◀

Hainbat tasa eta zerga %2 igotzea onartu du Leioako Udalbatzak

Urriaren 26an egindako udalbatzan, 2018an hainbat udal-tasa eta zerga %2 igotzea babestu zuten EAJk eta PSE-EEK; alderdi politiko horiek biek osatzen dute Leioako Udal Gobernu Taldea. Tasak eta zergak igotzeko, 2017ko maiatzeko KPlaren igoera (%2,1) aintzat hartu dute agintari leioaztarrek. Hala ere, horietako batzuk ez dituzte igoko, daborduko onartuta dagoen gehiengoan (%5) daudelako; barbarako Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko zerga. Bestalde, estolderia-tasa ez zaie kobratuko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenei; zarama-batzearen erdia ordainduko dute horiek. ◀

Udalkutxatik diru gehiago jasoko du Udalak, 2018an

Udalkutxaren kitapen-aurreikuspenen berri eman dio Bizkaiko Finantza Lurralde Batzordeak Leioako Udalari; horrez gainera, 2018an zenbat diru jasoko duen badaki erakunde publiko leioaztarrek. Aurten, 18.043.768 euro jaso ditu Udalkutxatik Leioako Udalak. Hala ere, kitapen-aurreikuspenen arabera, 18.182.678 euro dira jaso beharrekoak denera; hau da, %0,77 gehiago. 2018ko aurreikuspenei dagokienez, 18.679.287 euroko finantzazioa izango du erakunde publiko leioaztarrek; 2017ko kitapenagaz alderatuz gero, %2,7 gehiago. Aldundiak diru-sarrera handiagoak izatea ahalbidetu du igoera hori. ◀



DBHko eraikin berria inauguratu zuen Betiko Ikastolak, azaroaren 11n. Gainera, HHko eraikina erreformatu, idazkaritza berria altxatu, jantokia handitu eta igogailua zein larrialdietako eskailera ipini dituzte. «Ikastola osoa berriro inauguratu dugu», diotenez. © BETIKO IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Sopela

Parkeak konpondu guran

Gernikako jolasgunea zaharberritzeko lanek hilabete bi iraungo dute; urriaren erdialdean amaitu zuten Artatza parkea.

Sopelako Udalak herriko jolas-parkeak berriztatzeko plana gauzatzen jarraitzen du. Artatzako jolasgunea izan da eraberritu duten lehenengoa; urriaren erdialdean amaitu zituzten obrak. Konponduko duten hurrengo parkea Gernika izango da. Egingo dituzten lanei dagokienez, jolasgunea handitu egingo dute, ia 180 metro koadrora zabaltzeraino, besteak beste; obren iraupena hilabete bikoa izango da. Udalak 55.000 euro bideratuko ditu lanak egitera, denera. Hobekuntza horiei esker, sopeloztarrek jolasgune handiago batez gozatzea aukeran izango dute:



Gutxi gorabehera, 170.000 euro inbertituko dituzte, jolasguneak konpontzeko. © SOPELAKO UDALA

kulunka berri bi (bata, normala, je-sarleku bigaz; bestea, zesta bategaz), hegazkin txiki bat, helikoptero bat eta hodeigune bat ipiniko dituzte.

Sopelako alkatea den Gontzal Her-mosillak adierazi duenez, «umeen-

tzako parkeen egokitzapenak aurrera darrai eta lanek erritmo egokia hartu dute. Obrak sekuentzialki ari gara egi-ten, udalerriko umei gune seguru-agoak eta adeitsuagoak eskaintzeko helburuagaz».

EH Bildu «arduratuta» dago aurrekontuen hitzarmenaz

Sopelako EH Bilduko ordezkariak «kezkaturata» daude Gotzon Her-mosilla alkateak zein Udal Gober-nuak aurrekontu-akordioa zelan ku-deatzen dabiliztan ikusita. Ezkerreko indar soberanistak urte hasieran hitzarmena izenpetu zuen, EAJgaz eta PSE-EEgaz; EH Bilduren abstentzioa medio, 2017ko diru-kontuak onartu egin zituen Udalbatzak. Trukean, ez-kertiarren 13 proposamen zehatz txer-tatu zituzten udal-aurrekontuetan. «Bidegorria, Urkoko aisialdirako ins-talazioen hobekuntza eta umeen jolas-lekuetan egindako zenbait moldaketa izan ezik, proposamen gehienei orain-dik ere ez zaie seriotasunez heldu», kritikatu dute EH Bildukoek. Horrez gainera, kulturgune berriko eraikun-tzaren eta pilotalekuko eraikinaren birmoldaketaren prozesu parte-har-tzaileak zelan gauzatuko diren jakin gura dute soberanistek.

Zipiriñe ikastetxeko gurasoek mobilizazioak egingo dituzte

Zipiriñe ikastetxeko gurasoen el-karteak mobilizazioei ekitea erabaki zuen, aho batez, aste-lehenean, azaroaren 13an; izan ere, hezkuntza-zentroak daukan leku fal-tari aurre egin guran, Eusko Jaurlari-tzako Hezkuntza Sailak barrakoi bat instalatu zuen joan den urriaren aka-buan, eskolako patioan. «Ez dauka-gu zehaztuta mobilizazioak zeintzuk izango diren eta noiz izango diren; baina, argi daukagu arazo hau kon-pontzeko, jo beharreko ate bi daude-la», adierazi dute aita-amek. Alde ba-tetik, Eusko Jaurlaritzara zuzenduko dira; «haiek onartu behar dute ikaste-txe berri bat egin edo bestelako kon-ponbideren bat bilatu». «Alde biko



Eskolak emateko, barrakoiak ipini dute patioan.

borroka» horretan Udalari ere zuzen-duko zaizkio. Besteak beste, hurren-go udalbatzan egongo direla adierazi dute Zipiriñeko guraso-elkartekoek. Azkenik, «dauzkaten zailtasunakaz», ikastetxeko irakasleek eta langileek egiten duten «lan bikaina» goraiatu dute. Bi mila guraso inguru dira.

Itzartu emakumeen elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu

Itzartu emakumeen elkarteak ekin-Itzez beteriko egitaraua antolatu du. Besteak beste, gaur, eguena, aza-roaren 16an, *Aprendiendo a conducir* genero-ikuspegiko pelikula proiektatuko dute, gaztelaniaz, Kurtzio kul-tur etxean. Hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrera, doan. Azaroaren 23an, eguenean, ostera, *Las mujeres que hay en ti* herboldia egongo da, 18:00etan, Itzartu elkartearen lokalean (Landa doktorea kalea, 3, lonja). Biharamu-nean, azaroaren 24an, barikuan, *Volar* filma aurkeztuko dute, 19:00etan, hori ere Kurtzion. Azkenik, zapatu hone-tan, azaroaren 18an, Lodosara eta Gas-teizko Artiumera joango dira.

info+: itzartu@hotmail.com

Musikaldiaren azken aste-akabua egingo dute, Kurtzion

Musikaldiak aste-akabu honetan Mizango du segida, *Nocturnos para el día* Alejandro Aparicio gitarrak-jolea-ren kontzertuagaz (azaroaren 17an, 20:00etan), musika eta dantza uztar-tzen dituen *Soinuaren bidaia* ikuski-zunagaz (azaroaren 18an, 20:00etan), *Bi poliedro* emanaldiagaz (azaroaren 19an, 12:00etan) eta San Asensioko Udal Bandaren entzunaldiagaz (aza-roaren 19an, 18:00etan). Azken talde hori Errioxatik etorriko da. Gainera, jotzen dabiliztan bitartean, euskarazko azalpenak emango dituzte. Bestalde, azaroaren 17an, kontzertuan, azalpe-nak emango ditu Alejandro Aparicio gitarristak. Saio bakoitzaren sarrerak 3 euroan egongo dira.

ander deuna ikastola

haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaiastola.eus

ARTOLOZAGA ANAIK
Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Lemoiz

Arrainak hazteko lekua

Zentral nuklear ohian arrain-haztegi bat egiteko proiektua proposatu du Eusko Jaurlaritzak.

Lemoizko zentral nuklearraren instalazioetan arrain-haztegia egin asmo du Eusko Jaurlaritzak. Hala jakinarazi zuten joan den azaroaren 8an Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak eta Rogelio Pozo Azti ikerketa-zentroko zuzendari nagusiak. Azti egindako ikerketa baten arabera, posiblea da zentralaren instalazioak birmoldatzea eta bertan ganbak, otarrainxkak, erreboiloak, mihi-arrainak, izokinak eta amuarrainak haztea. Tapiaren arabera, industriaren ikuspuntutik «hondamendi-egoeran» dagoen gunea «berreskuratu eta jarduera eko-



info+: www.hiruka.eus/lemoiz

nomiko ezberdin eta jasangarria mar txan ipiniko dugu». Bertan askotariko espezieak haztea teknikoki zein ekonomikoki bideragarri ote den aztertze-ko ikerketa egin du Azti, eta benetan «egingarria» eta «bideragarria» dela

egiaztatu dute. Horrenbestez, nuklearraren instalazioak akuikulturaren erabiltzeko birmoldatzea proposatu dute. Oraindino ez dago adostuta proiektu zehatzik; halere, aurreratu dute zenbait inbertsiogilek interesa luketela. ◀

Neguko kolonietan izena eman daiteke, azaroaren 24ra arte

Gabonetako negulekuak antolatu ditu Lemoizko Udalak aurten ere. Abenduaren 26an, 27an, 28an eta 29an eta urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango dira saioak, 09:00etatik 14:00etara. 3 - 5 eta 6 - 12 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute; leku-kopurua 20 lagunerara mugatuta dago. Negulekuetan izena eman gura dutenek azaroaren 24ra arte izango dute aukera, Armintzako kultur etxean. Arduradunek azaldu dutenez, bertako eta inguruetako herrietako umeek parte har dezakete egitasmo horretan; hala ere, Lemoizko neska-mutilek lehentasuna izango dute. Lemoizen erroldatutako umeek 20 euro ordaindu beharko dituzte; oster, gainerakoentzako prezioa 40 eurokoa izango da. Dena dela, kasu bietan, deskontuak egongo dira familia ugariarentzat eta oinarrizko errenta dutenentzat. ◀

info+: www.lemoiz.eu

GETXOARTE2017

17>19//11

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

OSTIRALA-LARUNBATA // VIERNES-SÁBADO:
11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00

IGANDEA // DOMINGO: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

RAQUEL ALGABA / RAQUEL ASENSI / WAKIZASHI / MANU BLÁZQUEZ
ADRIÁN CASTAÑEDA / PALOMA DE LA CRUZ / ANA CISCAR
CLÁUDIA DEL & JAUME CLOTET / JENNIFER CUSTODIO
ALEJANDRO FRANCISCO CASTILLO / MARTÍN DEL BUSTO / ART AL QUADRAT
ARANTZA ELEJABEITIA / CRISTINA FERNÁNDEZ / PACO CHANIVET
RAFAEL JIMÉNEZ / GALA KNÖRR / EZTIZEN LA CRUZ
REBECA LAR / VICTORIA MALDONADO / GABRIELE MUGURUZA GOENAGA
MARÍA MURIEDAS DÍEZ / KONTRAPUNTUA / SASKIA RODRÍGUEZ
SOLANAS-DÍAZ / IRATI URRESTARAZU / JOSÉ LUIS VALVERDE
JEAN PIERRE VARGAS / IRANTZU ETA NATALIA / JUSTYNA DZIABASZEWSKA
XABI HERNANDO / IBON GARAGARZA / RODA / ANTONIO R. MONTESINOS
ANARTZ ORMAZA + OLESIA KRYVONIS
#EXTRAESCOLAR - IES ARTAZA-ROMO BHI - JULIA DE LA HERA + INÉS CARO
+ MIREN SÁENZ + GOIURI AYALA + PELLO SERÓN + LIAM FRANCIS + ANA IBÁÑEZ
LAURA RUIZ / ANDREA RODRÍGUEZ NOVOA / MARISOL SALANOVA
SEMÍRAMIS GONZÁLEZ / TEO ARKIBIRIAK / ISAAC TORRES / FITO CONESA
SALÓN - BEATRIZ ORTEGA BOTAS + ESTHER GATÓN / TIPI / ANT-ESPACIO
LA COSMOS - MARLARKO HERNÁNDEZ + JULEN ALBERDI + ALAZNE ZUBIZARRETA
BIDEOTIK + CUELLO VUELTO / ERREDAKZIOA + GELEN JELETON
ANOTHER PRESS / NARATA + ARISTIDE STORNELLI

ANTOLATZAILEAK // ORGANIZADORES



BABESLEAK // PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK // COLABORADORES



Plentzia

«Lekua diseinatu baino, bidea bera da emaitza»

Plentzia Amesten egitasmoa garatu dute azken hilabeteotan udalerrian; umeek euren hiribildua zer-zelakoa gura duten hausnartzeko baliagarria izan da, besteak beste.



Estitxu Garaizar eta Maddalen Cuñado, Plentzia Amesten egitasmoaren talde eragileko kideak.

TESTUA: IKER RINCON MORENO
ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Umeen iritziak, desirak eta interesak batu ditu hilabeteotan Plentzia Amesten egitasmoak. Prozesua amaitzear dago, hala ere, hori baino lehen, ondorioak eta proiektu berria aurkeztuko dute hilaren 30eko Udalbatzan.

Zein da Plentzia Amesten egitasmoaren helburua?

Helburua da haurren parte-hartzea sustatzea herrian eta, horrekin batera, haien arteko euskararen erabilerrari bultzada ematea. Horrela, beraien iritziak, interesak eta beharrak beste edozein herritarrenak bezain garrantzitsuak direla eta herrian aldaketak sortzeko gai direla ulertzen dugu.

Nortzuek garatu duzue egitasmoa?

Norbanakoek eta talde desberdinek parte hartu dute horretan, modu batera edo bestera. Gizarte-hezitzaileak, kua-drilletako eta gaztetxeko kideak, guraso eta banakako interesdunak pasa dira talde eragiletik, udal-ordezkarri eta Urtxintxaren hezitzaile banarekin batera. Ludotekako arduradunekin harremanetan egon gara, eta Plentzia Telebista ere bertan izan da, proiektuaren fase denetan bidelagun.

Zein izan da orain arteko ibilbidea?

Hasteko, sentsibilizazio-fasea egon zen, herriko helduei zein gaztetxoei proiektua zer den eta horren garrantzia zabaltzeko. Aldi berean, Plentzia Telebistako lagunekin batera, haurrekin bideo bat grabatu genuen, haurrek euren burua Plentzian nola ikusten duten azalduz. Ondoren, diagnostiko-fasea burutu genuen; horretan, haurrek udalerrian gustatzen zaizkien eta aldatuko lituzketen gauzak identifikatu zituzten. Horretarako, topaketa bi egin ziren ekainean, Ontziola plazan. Bertan azaleratu zen erabilgarri izan zitezkeen eta ordura arte ez diren leku batzuk moldatzeko interesa. Orain, gauzatze-fasea bukatzear dago; leku konkretu bat biziberritzeko proposamena diseinatu da, eta, laster, Udalbatzan aurkeztuko da. Edonola ere, sortuko den leku fisiko horren eraldaketa baino, ibilbidea bera da emaitza.

Eta zein izan da umeen jarrera egitasmo horrekiko?

Haurrek oso gogotsu parte hartu dute, eta oso ideia sortzaileak plazaratu dituzte. Ez hori bakarrik, leku publikoan parte hartzeko aukeraz eta mugaz hausnartu dute, gertatzen diren arazoak azaleraziz. Gainera, askotan helduok uste izaten dugunaren kontra, edozein leku diseinatzeko orduan

beraien interesetatik harago herritar guztiak zelan baldintzatuko lituzketen pentsatzen dute, beraien beharrak eta helduenak askotan nahasteraino.

Eta gurasoena?

Gurasoek ez dute haurren jarduna oztopatu, ezta zapuztu ere. Autonomiaz utzi diete parte hartzen, eta egindako saioetakoa entzun dute errespetu osoz.

Haurrek zelan ikusten dute udalerria?

Gauza interesgarriak atera dira. Nabarmenezkoa da herriaren erdigunean berdegune bat sortzeko nahia, haurren eta gaztetxoen elkargune litzatekeena. Txakur-kakak direlako edo erdigunetik urrun daudelako, dauden berdegunek ez dute balio izaten bertan jolasteko edo lasai egoteko.

Aurkeztutako ideien artean, zeintzuk lirateke egingarriak?

Idea mordo baten artean, erabilerririk gabe zegoen leku bat biziberritzea nahiago izan dute, Estrella delako gunea. Leku txikia izan arren, erdigunean dago: Ontziola plaza, frontoia, skate-pista eta itsasadarren ondoan. Beraz, inguruan giroa egoteko beste eremu hori beraien erara gauzatu nahi dute. Bertan, berdegunea, banku naturalak, tirolina eta ur-jolasgune bat diseinatu dituzte. ◀

Umeen Gabonetako Parkera joateko irteera, urte amaieran

Barakaldoko Umeen Gabonetako Parkera joateko irteera antolatuko du Plentziako Udalak. Txangoa abenduaren 28an izango da, eta 2004 eta 2011 urteen artean jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago. Horretara joan gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, abenduaren 1a baino lehen. Txangoaren egunean, irteera-ordua 10:00etan ipini dute, Plentziako Eskolan; itzulera, ostera, 18:00etan, Charterrean. Plentzian, Gorliz edo Lemoizen erroldatutakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 25 euro. ◀

info+: www.plentzia.eus / kultura@plentzia.eus

Gorliz

Herrian kontsumitzea bultzatzeko bonuak salduko dituzte

Bertoko dendetan kontsumoa bultzatzeko, 200 bonu kaleratuko ditu Gorlizko Udalak. «Bono Gorliz 2017» kanpaina izango da hori: interesa dutenek horietako bonu bat eskuratu ahal izango dute, 25 euroko balioa izango duena, eta 20 euroan erosi ahal izango dute; horrenbestez, bonuak dituztenek 5 euroko saria izango dute udalerriko saltokietan erosketak egin ahal izateko. «Modu horretan, kontsumitzaileek % 20ko deskontua lortu ahal izango dute Gabonetako erosketetan», arduradunek azaldu dutenez. Horrez gainera, jakinarazi dute saltokiek kanpaina horretara batzeko aukera dutela oraindik. Hilaren 17ra arte izena eman dezakete. Azaroaren 27an hasiko dira bonuak saltzen, eta 2018ko urtarrilaren 5era arte erabili ahal izango dira, kanpaina horretan izena eman duten denda denetan. ◀

info+: www.gorliz.eu

Gabonetako Azoka eta gastronomia-saioa, abenduaren 8an

Gabonak ate-joka ditugu eta, laster, sasoi horren berri emango duten argiak isiotuko dituzte kaleetan. Horrez gainera, ohi den legez, Gabonetako Azoka egingo dute datorren abenduaren 8an. Egun berean, gainera, Barraskiloak prestatzeko lehiaketa egingo dute. Izena emateko epea zabalik egingo da hilaren 30era arte, Gorlizko Kultur Etxean. ◀

izen-ematea: gorliz@gorliz.net / 946 774 000

Urduliz



Uribe Kostako eraikinik altuenetakoa da Urdulizkoa.

Urdulizko dorrea zaharberritu dute

Mecánica de la Peña lantegi zaharraren kanpoaldea berritu dute; barrualdea egokitu behar dute orain.

Urdulizko Mecánica de la Peña lantegi ohiaren «etxe orratza» zaharberritu dute, horren aurrealdea, hain zuzen ere. 2016ko udan hasi zituzten eraikina berritzeko lan orokorrak, eta, daborduko fatxada eraberrituta dago. Orain, barrualdean, iturgintza-lanak egin eta instalazio elektrikoa zein aire

girotua ipini behar dituzte; bigarren fase horren aurrekontua 3 milioi eurokoa da. Eraikinak 550 metro koadroko 12 solairu dauzka; bertan, askotariko bulegoak egotea aurreikusi dute, azpiegituraren barrualdea egokitu ostean. Dena dela, dirudienez, aukera egongo da bestelako jarduerak egin ahal izateko, ikerketa batek bateragarritasuna dagoela onartuz gero. Gaur egun, eraikina Urduliz Industrialdearena da; hala ere, zenbait hedabidek azaldu dutenaren arabera, baliteke, Urdulizko azpiegitura hori enkante batean saltzea, etorkizunean. ◀

Garuneko paralisia duen ume baten aldeko tapoi-batzea

Meningitis batek eragindako garuneko paralisia jasaten duen Urdulizko ume bati laguntzeko plastikozko tapoiak batzen hasi dira oraintsu. Azkenaldian gaixotasunak dituzten pertsonen laguntzeko modua bilakatu dira bilketa horiek, dirua lortzeko; izan ere, horien tona bakoitzeko 300 euro lortu ohi dira. Urtebete duen umearen ka-

suan, gaixotasunari aurre egiteko dirua behar dute bere senideek. Horretarako, «Aurrera, Araitz» kanpaina abiarazi zuten orain dela gutxi; goiburu berbera duen orrialdea zabaldu dute Facebook sare sozialean, eta, daborduko, babesa eta elkartasuna jaso dute leku askotatik. Tapoiak batzeko lekuen berri ematen dabilta sare sozial horren bidez. ◀

Berango

Simon Otxandategi Dantza Taldearen 75. urteurrena, 2018an

Datorren urtean beteko ditu 75 urte Simon Otxandategi Dantza Taldeak. Hori dela eta, urteurren berezi hori «dagokion moduan» ospatu ahal izateko, dantza-taldean parte hartu duten denak udalerriko frontoira joatera deitu dituzte azaroaren 25ean, 20:00etan. Bertan, Otxandategi taldeak ikustaldia eskainiko du bertaratu diren denentzat. Ostean, urteurrenean egiteko aurreikusitako ekitaldi denen berri emango dute, eta 75 urteotan taldean parte hartu duten denen izen-abizenen behin-behineko zerrenda ipiniko dute ikusgai. Proposamenak egiteko tartea ere egongo da. ◀

Azaroaren 25ari begirako ekitaldiak hasi dira daborduko

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrakto Eguna da azaroaren 25a, eta hori lotutako ekimenak prestatu dituzte dagoeneko Berangon. Joan den azaroaren 11n, Berango Antzokian, lehenengo ekitaldia egin zuten: Lola Markaidaren bakarrizketa. Hurrengo saioa zapatuan izango da, azaroaren 18an. Arrastiko 07:00etan Paddam bikoteak *Chansons* kontzertua eskainiko du Berango Antzokian, abesti frantses ezagunak abestuz. Ostera, azaroaren 25ean, Atakados taldeak *Hoy Milagro* ikuskizuna estreinatuko du, 19:00etatik aurrera, Berango Antzokian. ◀

info +: www.berango.net

Uribe Kosta

Urdulizko ospitaleko 18 garbiketa-langile, kaleratuta

Urdulizko ospitalean lan egiten zuten Comercial de Limpieza Villar SA enpresako 18 garbiketa-behargin kaleratu dituztela salatu dute ELAk eta LABek. Osasun-zentroaren aurrean egindako elkarretaratzean, joan den barikuan, hilaren 10ean, Osakidetza-jarrera deitoratu zuten sindikatuek: «modu desagoki eta kontzientean hartu dituzten erabakiek 18 langile kaleratzea suposatu dute».

Sindikatuak azaldu dutenez, Limpiezas Villarrek kontratuak eten zizkien ospitalean behar egiten zuten 18 langile horiei azaroaren 1ean. ELAk eta LABek diotenez, enpresa azpikontratuak adierazitako argudioa izan da Osakidetzagaz zuen harremana eten egin dela Urdulizen, eta ez die langileei bestelako proposamenik eskaini. «Egoerari onartezina deritzogu. Osakidetza berak hartutako erabaki okerrak 18 langileei ordainarazi nahi dieten



Protesta egin dute egunotan. ELA-LAB

eta ez da inolaz ere bidezkoa. Horregatik, 18 langile horien etorkizuna bermatzeko konpromisoak har ditzatela eskatzen diegu Osakidetza-jarrera eta Limpiezas Villarri», zabaldu dute sindikatu biek.

Osasungintza Sailak joan den ekainaren 23an sinatu zuen kontratua Comercial de Limpieza Villar SA enpresagaz, Uribe Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) 18 zentroen garbiketa-zerbitzua esleitzeko. ◀

Lanekoak ez diren praktikak egiteko bekak emango dituzte

Barrika, Berango, Gorliz, Leioa, Leizor, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udalerrietako gazteen artean besteren konturako enplegua sustatzeko bekak martxan ipini dituzte. Gaztedi Uribe Kosta izeneko lankidetzaren bidez, lanekoak ez diren 4 hilabeteko praktikak egin ahal izango dira. Denera, 10 beka eskainiko dituzte aipatutako udalerrietako gazteek lan-arloan esperientzia lor dezaten; gerora,

merkaturatzea errazteko helburuagaz. Beka horiek aurretik aipatutako udalerrietakoren batean erroldatuta dauden 18 eta 25 urte arteko gazteei bakarrik zuzenduta daude. Horrez gainera, Lanbiden lan-eskatzaille gisa agertu beharra dago. Lan-profilari dagokionez, Lanbide Heziketako (Erdi edo Goi-mailako) tituluduna edo unibertsitate-tituluduna izatea beharrezkoa da. ◀

info+: behagintza@leioa.net / 944 004 195

Arkatzar belarrian

UNAI ETXEBARRIA BEITIA
Arkitektoa

Adreiluei entzuten ikasiko bagenu

Horma izatea erabaki zuen. Arretaz aditu zituen bere alboan zituenak: morteroa, beste adreiluei atxikitzeko; karea, hotz eta beroetatik babesteko; pintura, denek batera itxura berdintsua edukitzeko...

Ez zen harria, ez zen hormigoi-blokea, baina eurek bezain tinko eusteko konbentziturak zegoen. Pozik zebilen han: gainontzeko adreilu, mortero, kare eta pinturaren artean. Sosegua espero zuen adreiluak horma haren barrenean. Baina noizbait pintadez josi beharko zuten, bazekien. Gizakia ez baitago hormak bere horretan uzteko egin. Horma behar du pertsonak, aldarrikapenak adierazteko. Eta spraya, eta pintura botea, eta ezkutaketa. ◀



Besteak beste, ordezkari-tza komertziala ez duten jatorri ezberdinetako artisten 31 proiektu ikusteko aukera egongo da, banakakoak zein taldekakoak. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Sorkuntzaren ispilua

Getxoarte praktika garaikideen aretoaren jardueraz gozatzeko aukera egongo da azaroaren 17tik 19ra arte, Areetako Xake plazan ipini duten karpapean.

Barikutik domekara bitartean izango da Getxoarte, praktika garaikideen aretoa, Areetako Xake plazan ipinitako karpan. Ekimen horrek orain dela lau urte hasitako bideari jarraitu gura dio: gaur egungo artearen mundua ezagutzera eman nahi dute, eta jendearengana hurreratzeko aukera izatea. Horretarako, programa batzuez baliatzen dira. Programa Orokorrak ordezkari-tza komertziala ez duten jatorri ezberdinetako artisten 31 diziplina erakutsiko ditu, banakakoak zein taldekakoak.

Bitartekaritza Programaren bidez, berriz, askotariko ikusleengana zabaldu gura dute artearen mundua, zenbait jardueraz baliatuta; berbarako helduentzako bisita gidatuak eta tailerrak. Ildo horretan, umeentzako tailerrak ere egongo dira Getxoarten; horien bitartez, gaztetxoek modu ludikoan ezagutu ahal izango dute sorkuntzaren mundua. Modu berean, aurton, ahalegin berezia egingo dute erretiroa hartutako adineko pertsonak artearen mundura erakartzeko; eta antolatutako jardueren bitartez,

irakasteaz gainera, euren esperientzia eskaintzeko aukera izango dute, antolatzaileek azaldu dutenez.

Bestalde, Programa Hedatuan, artearen ekoizpenaren mugak «luzatu» eta elkarlotzen dituzten sei proiektu

Ibon Garagarza Berger algortarra da artista gonbidatua; Garrobi elkarteko kidea da bera

egongo dira, bitartekaritza-proiektuen lankidetzari esker. Laborategi-programari dagokionez, arte garaikideak teknika grafikoaren eta inprimaketaren munduan zer-zelako lekua izan dezakeen ikusteko aukera egongo da. Azkenik, arte garaikidea eta diziplina eszenikoak zelan uztar daitezkeen erakutsiko du Programa Eszenikoak.

Aurreko urteetan legez, aurten ere, artista gonbidatua ez da faltako; horrek Getxoarterako bereziki eginiko proiektua garatuko du eta programa

orokorrean parte hartuko du. Oraingoan, Ibon Garagarza izango da. Antolatzaileen arabera, sortzaile horrek lan aipagarria egin du azken urteotan. Gainera, primeran ezagutzen du azoka; aurreko edizio batean ere bere lanak erakusteko hautatua izan zen eta.

Denontzako gunea

«Nabarmendu behar da Getxoarte gune irekia dela: zeharkakoa eta al-dakorra da, eta helburu hezigarria zein eraldatzailea dauka», azaldu du Getxoko Kultur Etxeak. Hori dela eta, zenbait proiektugaz eta erakundegaz elkarlanean jarduteko apustua egin du praktika garaikideen aretoak; horien artean daude esaterako Euskal Herriko Unibertsitatea, Azkuna Zentroa, Nazioarteko Grabatu Jaialdia eta Artium museoa. Azken horregaz batera, Getxoarte-Artium saria sortu dute; 2.000 euroko diru-ekarpena izango du horrek. Hala, epaimahai batek Getxoarteren bilduman gordeko den lana hautatuko du; horrez gainera, obra hori Arabako Artium Museoa ikusteko aukera egongo da. ◀

Jarduera batzuk

Azaroak 17, barikua

11:00 Inaugurazioa.

13:00 Risografia-inprimaketa lantzeko tailerra, EHUko Arte Ederren ikasleakaz eta Another Press-egaz.

19:00 Bisita gidatua, Laura Ruizegaz.

19:00 Ibon Garagarza (artista gonbidatua) berbaldia.

Azaroak 18, zapatua

11:00 Tailer irekia, Antonio Ruiz Montesinos irakasleagaz; kontakizuna, argazkigintza eta on-line edizioa.

12:30 Materiaren eta zentzumenen gaineko umeentzako tailerra.

13:00 Berbaldia, programa orokorreko artistakaz.

17:00 *Introducción al papercutting* tailerra, José Antonio Roda irakasleagaz.

18:00 Isaac Torresen *He venido al desierto* ikuskizuna.

Azaroak 19, domeka

13:00 Bisita gidatua, keinuen hizkuntzan.

13:30 *Bideotik* (EHU) proiektuaren aurkezpena.

18:00 Fito Conearen *Bailables* ikuskizuna.

18:00 Sarien banaketa.

Aurretik izena eman beharko dute bisita gidatuetan edo tailerretan parte hartu gura duten denek; informaziogunera joan beharko dute.

info+: www.getxo.eus/eu/getxoarte



Sasoi denetako berrehun euskal kantaren baino gehiagoren zatiak agertzen dira antzezlan honetan. © TARTEAN TEATROA



ERANDIO

Ez dok hiru! umorezko antzezlan​a, Altzagan

Ez dok hiru! antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da azaroaren 22an, eguaztenean, Erandion. Tartean konpainiako Patxo Telleria eta Mikel Martinez igoko dira oholtza gaine​ra, Altzagako azoka zaharrean. Hiru musika​-aktorek lagunduko dituzte; horien artean dago Maria Arriaga al​gortarra. Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrera, doan. Telleriak eta Mar

tinezek urteak daroatzate bikote ar​tista lanean, antzerki​-obrak sortzen, ekoizten eta antzezt​en: beste asko​ren artean, *Lezio berri bat ostrukari* buruz, *Euskara sencilloaren manifestua*, *Larru haizetara*, *Euskarazetamol*, *Lingua nabajorum* egin dituzte. Denboragaz, halako estiloa sortu dute ia oharkabe​an, iturri askotatik edaten duena; baina, berezko kaligrafia dau

kana: aktore biren elkarrizketetan oi​narritzen da, berbaldi motz eta pika​tuak, azkar​ak, eroak... *Ez dok hiru!* antzezlanari dagokionez, euskal kan​tutegian oinarritutako teatro​-ikus​kizuna da: «Gure modukoa: eroa, deskonzertantea, irrigaria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari gure musikarekiko maitasuna dario», diote Telleriak eta Martinezek. ◀

PLENTZIA

Plentziaclassic elkarteak motorren erakusketa ipiniko du BECen

Plentziaclassic elkarteak sasoi bateko lasterketa​-motorrak ikusteko aukera emango du, Barakaldoko BEC aretoan; izan ere, azaroaren 17tik 19ra arte, ber​tan egingo duten Retroclasica Bilbao 2017 azokan parte hartuko du ibilgai​-lu klasiko​en lagun​en Plentziako elkar​teak. Denera, 18 motozikle​ta eroango ditu Plentziaclassic elkarteak.◀



lazko erakusketa BECen.
© PLENTZIACLASSIC

ANTZERKIA

AZAROAK 16, EGUENA

Uhuri, gautxoriaren uluak ipuin​-kontaketa

18:00 | Algotako kultur etxea | Getxo
Doro Zoharan ipuin​-kontalariagaz. 5 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

AZAROAK 17, BARIKUA

Kontularien Kluba

19:00 | Algotako kultur etxea | Getxo
Ipar Amerika izango da ipuinen gaia. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Los tres cerditos y el lobo

19:30 | Kultur etxeko entzuzgela | Urduliz

IKASTAROAK

AZAROAK 21, MARTITZENA

Argazkien edizioa

19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio
Astrabuduko Fotoclub elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan. Informazio gehiago: astrabudukofotoclub@gmail.com

MUSIKA

AZAROAK 16, EGUENA

Bikoizten (pop-rocka)

20:00 | Jolasaurre taberna | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuituaren barruan. Doan.

AZAROAK 17, BARIKUA



GETXO

Musikagintza, euskara eta emakumea berbabide

Getxoko Udaleko Berdintasun eta Euskara zerbitzuen elkarlanari esker, azaroaren 22an, eguaztenean, berbaldia eta kontzertu akustikoa egongo dira, Algotako Azebarr​i kulturgunean. Hala, On musika​-taldeko gitarra​-jolea den Itsaso Gutierrez eta La Basu rap​-kantaria izango dira bertan. Saioa 19:00etan hasiko da; sarrera, doan. ◀

Pop-rock lehiaketako kartela bozka daiteke

Leioako Udalaren XVIII. Pop-Rock Lehiaketaren kartela izango dena aukeratzeko, hiru kartel aukeratu dituzte, herri-bozketaz hautatuko da irabazlea; hilaren 19ra arte, botoa eman daiteke. ◀ **botoa emateko:** www.kulturleioa.com

Berbaldia emango du Kike Amonarrizek

Kike Amonarriz soziolinguistak eta umoristak euskararen alde egindako ibilbideaz eta egiteke dagoenaz berba egingo du azaroaren 21ean, martitzean, Areetan. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Getxoko Elkartegian; doan. ◀

Uxue Alberdiren liburuez berbetan

Azaroaren 23an, eguenean, Uxue Alberdi Algortako Aldai patronatuan izango da, 19:30ean, *Jenisjoplin* bere azkeneko liburua aurkezteko. Aurretik, 19:00etan, lagun-talde bat elkartzeko da, lan horren gainean berba egiteko. ◀

Getxoko Antzerki Taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
AZAROAK 18, ZAPATUA
Sorgina Txirulina ipuin-kontalaria
18:30 Sertutxena eraikina Gorliz
Ikuskizuna 4 urtetik gorako umeentzat da. Euskaraz. Sarrera, doan.
BERBALDIAK
AZAROAK 21, MARTITZENA
Irakurle Kluba
19:30 Astrabuduko kultur etxea Erandio
Elena Ferranteren <i>Los días del abandono</i> liburuarren gainean berba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
ERAKUSKETAK

AZAROAREN 17RA ARTE
<i>Itsasoa eta lurra</i>
Goñi Portal kultur etxea Plentzia
Mertxe Carpinteroren olio-pinturak. Astelehenetik barikura arte zabalik egongo da. Sarrera, doan.
AZAROAREN 24RA ARTE
<i>Afrika emakume izenarekin</i>
Kurtzio kultur etxea Sopela
Derandein Fundazioaren argazki-erakusketa. Sarrera, doan.
AZAROAREN 27RA ARTE
<i>Xabiroi</i>
Xake plaza (Areeta) Getxo
Komikien erakusketa. Sarrera, doan.
ABENDUAREN 8RA ARTE
Bosteko 2017
Kultur Leioako erakusketa-gela Leioa
Sarrera, doan.
ABENDUAREN 11RA ARTE
<i>Harriet antologikoa: gidoilaria</i>
Xake plaza (Areeta) Getxo
Komikien erakusketa. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 23RA ARTE
<i>Igarotzeak</i>
Zirri-marra arte-tailerra (Anboto, 2) Getxo
Mertxe Perizen artelanak. Sarrera, doan.

Jorge da Rocha
21:00 Kultur Leioako edaritegia Leioa
Kontrabaxu-jole portugaldarrak zuzenean aurkeztuko du bere azken lana: <i>To Drop and Let Go</i> diskoa. Sarrera: 5-10 euro.
AZAROAK 18, ZAPATUA
<i>Chanson francesa</i>
19:00 Berango Antzokia Berango
Paddam bikoteagaz. Sarrera: 3 euro.
Konpositore getxoztarren bigarren kontzertua
20:00 Areetako musika-eskola Getxo
Areetxo abesbatzagaz. Sarrera, doan.
AZAROAK 20, ASTELEHENA
Santa Zezilia Eguna
19:00 Astrabuduko kultur etxea Erandio
Erandioko Musika Eskolagaz. Sarrera, doan.

ZINEMA
AZAROAK 16, EGUENA
<i>Aprendiendo a conducir</i>
18:00 Kurtzio kultur etxea Sopela
Genero-ikuspegiko zinema. Itzartu emakumeen elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.
AZAROAK 17, BARIKUA
<i>Bigas x Bigas</i>
21:00 Areetako musika-eskola Getxo
Zine-kluba. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.
AZAROAK 18, ZAPATUA
<i>El pequeño vampiro</i>
18:00 Kultur etxea Urduliz
Danontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.
AZAROAK 18 ETA 19
<i>Igelen erresuma</i>
17:30 Kultur Leioako entzungela Leioa
Danontzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.
AZAROAREN 18TIK 20RA ARTE
<i>La cordillera</i>
20:00 Kultur Leioako entzungela Leioa
Emanaldia 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro (Ikusleen eguna: 3,50 euro).
AZAROAK 19, DOMEKA
<i>Angry birds</i>
18:00 Berango Antzokia Berango
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.




Edurne oinarrizko kanpamendura heltzen den bitartean, Txemak bidean topatuko ditu Yetia, Elurretako Erregina eta Heriotza. © TXALO PRODUKZIOAK

Mendi tontorrean, umeentzat, Areetan

Txalo Produkzioak taldeak Areetan estreinatuko du *Mendi tontorrean* antzezlanea. Mendi-gidaria eta espedizioburua den Edurne eta bere bezeroa den Txema dira protagonistak. Abentura honi esker, Txema, harroputz zitala, eskuzabala-goia bihurtuko da, eta Edurnek beldurrak uxatuko ditu. ◀

Noiz: Azaroak 19, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Areetako Andrés Isasi musika-eskola.
Sarrera: 5 euro.



Liburu-zerrendan dauden argitalpenen artean bat aukeratu, irakurri eta horren gaineko book-bideoa egin beharko dute parte-hartzaileek.

Oinarrietako batzuk

Zelan parte har daiteke?

Gehienez, hiru bideo aurkeztu ahal izango dira; bat eta bost kideren artean osa dezakete taldea. Bideo bakoitzaren iraupena minutu eta erdi eta minutu bi artekoa izango da.

Zelan aurkez daitezke lanak?

Lehiaketaren blogean, eskatzen diren datu denak bete beharko dituzte parte-hartzaileek, baita book-bideoa *Youtuben* argitaratzean sortzen den esteka txertatu ere. Lehiaketaren *Youtube* kanalera igoko dute antolatzaileek.

Sariak

Lan onenaren egileek liburu-irakurgailu elektroniko bana irabaziko dute, eta 100 euroko bonu-txartel bana. Bigarrenek ere liburu-irakurgailu elektroniko bana jasoko dute. Horrez gainera, publikoaren saria emango dute: *Gopro* kamera bana.

Aurkezteko epea

2018ko otsailaren 23ra arte.

info+: euskara.erandioon.com

Book Bideo Lehiaketa, Erandion

Otsailaren 23ra arte parte har daiteke Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako sariketan.

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak Book Bideo Lehiaketa antolatu du. Parte hartu gura dutenek aukeran eskaintzen diren liburuetakoa bat irakurri beharko dute eta horren trailerra egin.

Gustuko liburu bat iragartzeko edo gomendatzeko ikus-entzunezko lana da book-bideoa; hori egiteko, osagai desberdinak erabiltzen dira: irudiak, testua, ahotsa eta musika, baita liburua bera ere. Lanok aurkezteko azkeneko

eguna 2018ko otsailaren 23a izango da, Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak zehaztu duenez.

Gehienez bost pertsonako taldeek parte har dezakete lehiaketan. Lanak sariketarako zabaldu den webgunearen bitartez (euskara.erandioon.com) aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek; *Youtubera* igo ostean, horren esteka bidali beharko dute. Horregaz

batera, 18 urte baino gutxiago dauzkaten egileek gurasoen baimena erantsi beharko dute. Sarietarako dagokienez, lan onenaren egileek liburu-irakurgailu elektroniko bana irabaziko dute, eta 100 euroko bonu-txartel bana. Bigarrenek ere liburu-irakurgailu elektroniko bana jasoko dute. Horrez gainera, publikoaren saria emango dute: *Gopro* kamera bana. ◀

Hitza emanda



Drama

Roberto Benigniren film bellaren trama, Charles edo Montoliuren kanten pentagrama Astearteroko «Ur Handitan» programa... Batzuetan ederra ez ote da drama?



**ITXASO
PAYA RUIZ**
Bertsolari algortarra.

HIRUKAk proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Euskarazko Produktuen Katalogoa plazaratu dute; Getxoko eta Erandioko udalen parte-hartzeaz

Euskarazko Produktuen Katalogoa 1998an argitaratu zen lehenengoz; orduan, Nafarroako udal gutxi batzuek abiarazi zuten ekimena, eta, «gaur egun, 135 leku-entitatek parte hartzen dute, 200 udalek baino gehiagok, guztira». Azken horien artean daude Getxoko eta Erandioko udalak. Bertan, 16 urte bitarteko umeentzako eta gazteentzako euskarazko produktak jasotzen dira, eta zortzi ataletan sailkatuta daude: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika, jostailu eta jokoak, filmak eta gurasoentzako materiala. Katalogoa euskarri ezberdin bitan zabaltzen da: batetik, paperezko edizioa dago, urtean behin argitaratzen eta zabaltzen da, eta 130.000 aletik gora banatzen dira; bestetik, Interneteko edizioa dago (helbidea, behean). Paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere aurki daitezke Interneteko gunen horretan. ◀

info+: www.katalogoa.eus

Beitu!, nerabeentzako sakelako hedabidea

Nerabeei begirako hedabide digitala sortu du Gaztezulok. Horren bitartez, astialdiagaz lotutako euskarazko edukiak jasoko dituzte mugikorrean, zuzenean, 14 eta 18 urte arteko gazteek. Nerabeek astialdian kontsumitzen dutena euskaraz eta eskura edukitzea da horren helburua, komunikabidearen bultzatzaileek adierazi dutenez; izan ere, «azken hamarkadetan gazteen euskara-maila igo bada ere, erabileraren bilakaera ez da horren nabarmena izan». «Sare sozialak etengabeko informazio- eta aisialdi-iturri bilakatu dira nerabeen artean, eta sakelakoa da aisialdi honen kontsumorako erabiltzen duten gailua», diotenez.

Bestalde, hizkuntza-erabileraren ikerketek diotenez, gazteek aisialdian kontsumitzen dituzten edukien artean euskarak ia ez du presentziarik; gaztelaniazko eta ingelesezko edukien bilaketak, oster, gora doaz. Horre-



Euskaraz bultzatu gura dute. © GAZTEZULO

gatik, belaunaldi berriei egokitutako proiektuak garatzeko sortu da Beitu!, gazteei kalitatezko euskarazko edukiak eskainiko dizkien komunikabide digitala. Beitu! doan da, baina gazteek izena eman beharko dute hilero jaso ahal izateko. Behin harpidetza egin da, erabiltzailea komunitatearen kide izango da eta hilero *WhatsApp*ez jasoko du. Gustuko dituen edukiak klik bakarrean eta lagunakaz partekatzeko prest izango ditu. ◀

info+: www.gaztezulo.eus/beitu



Andy Hansonen dosia

JON
URRAZA INTXAUSTI
Aktorea

Orainaldia ulertzeko 198ora bidaia

CARME: Dibortzioa nahi dut.

MARIANO: Ezinezkoa. Ez dago legearen barruan.

CARME: Nire borondatea da.

MARIANO: Zelan ixten zaren, maitia. Ni, aldiz, demokrata hutsa naizenez dialogoari irekita nago, beti ere, gure elkarbizitza bateratua bermatzen duten lege eta konstituzioaren baitan, noski.

CARME: Giza Eskubideen Aldarrikapenak nire etorkizuna askatasunez erabakitzeke eskubidea aitortzen dit.

MARIANO: Gure zuzenbide estatutu demokratikoko legeek ez dute onartzen. Hau ez da Erresuma Batua.

CARME: Orduan, aldebakarreko independentzia erabakitzen dut. Banoa!

MARIANOREN LAGUNAK: (Kantutak kaletik. OFF) *¡A por ella, Oeeh! ¡A por ella, Oeeh!*

MARIANO: (Carme jipoituko du irtetera doanean). Legea beteazteko biolentzia proportzionala besterik ez da.

ALBISTEGIA: «Bere emaztearen delitu larria saihestu nahirik, senar batek eskuan lesioak sufritu zituen».

DON FELIPE, OSPITALEKO ABADIA: (Carme ospitaleko ohean larriki zaurituta) Alabatxo, zure jarrera ezkontzaren banaezintasun sakratuaren kontra doa. Hobe duzu bertan behera uztea.

MARIANO: (Logelako telebistako pantailan agertuko da) Carme, utziozu plantak egiteari, itzul zaitetz lege barrura eta alhora itzazu determinazio askerako saiakera horiek... Bestela, txarragoa izango da (zuretzako).



Proiektzioa amaitzean, berbaldia egin eta filma egiteko erabili izan dituzten jostailuak eta maketak erakutsiko dizkiete ikusleei.

«Spielbergen film bat imitadateke jostailu batzuekin»

Ander Pardoren *Overrum* film laburra estreinatuko dute Plentzian, barikuan, azaroaren 17an, Goñi Portal kultur etxean.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA
ARGAZKIA: HODEI TORRES

Jostailuak eta maketak erabiliz, Steven Spielberg zinema-zuzen-dari ospetsuaren *Jurassic Park* filma birsortu gura izan du Ander Pardo Hormazak. *Overrum* film laburra bere amaren jaioterrian, Plentzian, estreinatuko du. Hitzordua bariku honetan izango da, azaroaren 17an, 19:00etan, Goñi Portalen. Euskal aktore ezaguna den Mari Pardok ere parte hartu du pelikulan; Ander Pardo zine-magile gaztearen aita da bera.

Zelan bururatu zitzaizun *Overrum* film laburra egitea?

Umezaroaren zatirik handiena Plentzian igaro nuen; nire ama bertokoa da. Hamar urte inguru nituela estreinatu zuten *Jurassic Park*; ondorioz, garai horretako ume gehienei film horretako jostailuak oparitzen zizkiguten. Etxeko lorategian, Isuskitzan, dinosauroekin jolasten nintzen, eta, askotan, konturatu barik, begietako bat itxi egiten nuen, planoak eta perspektibak bilatu nahian. Behin, zera pen-

tsatu nuen: ondo legoke jostailu hauekin film bat egitea. Eta ideia hura hazi naizen artean buruan eduki dut.

Hollywoodeko produkzio handiei gorazarre egin gura diezu film honegatz. Bai. Film horiek eragin dizkiguten zirrarak gogora ekarri nahi ditut.

Spielberg imita daiten jostailuakaz? Kar, kar. Ikusleek erantzun beharko diote horri; baina, nire uste apalean, posible da. Gainera, pelikula ikusteko

“Seguru asko, umeak eta nerabeak izango dira filmaz gehien gozatuko dutenak”

aukera izan duten pertsona gutxi batzuek ere esan didate jostailuekin Steven Spielbergen *Jurassic Park* filma imitatzea lortu egin dudala.

Zeini begirakoa da *Overrum*?

Gustuko nuke esatea edozein adineko ikusleei zuzenduta dagoela; baina, seguru asko, nerabeak eta 10 urte inguruko umeak dira filmaz gehien gozatuko dutenak. Horiez gainera, *Jurassic Park* estreinatu zenean umeak ziren gaur egungo 30 urte inguruko lagun denek ere gustukoa izango dute.

Helburu didaktikoa dauka filmak?

Nagusiki, entretenitzeko abentura bat da. Baina, egia da, antzerki-irakaslea naizen aldetik, zeozer irakasteko asmoa ere badaukala *Overrum* film laburrak. Pelikula oso ikusgarria da, akzioz eta efektu bereziz beteta dago. Baina, ondo begiratzen badiozu, efektu horiek denak «etxeko erremedioekin» eginda daude. Hain zuzen ere, hori da nerabeei erakutsi dakiekena: «etxeko erremedioekin» horrelako gauzak egitea posible dela. Egingo ditugun aurkezpenetan, jendea harrituta geldituko da filma egiteko erabili ditugun jostailuak eta maketak ikustean.

Uribe Kostako hainbat lekutan grabatu duzu filma, ezta?

Txikitan, edonon ikusten nituen, Uribe Kostan, dinosauroz betetako irla hura irudikatzen zuten paisaiak.

Zure aita ere parte hartu du...

Mario Pardo euskal aktore ezaguna zen, txikia nintzela, etxerako lanak ez egiteagatik errieta egiten zidana. Kar, kar. Oso lagungarria izan da berak zinemagintzan daukan esperientzia; maketak egiten ere badaki. Pertsonaietako bati ahotsa eman dio, bai.

Zer espero duzu filmaz?

Ikusleentzat deigarria izatea espero dut; eta beste lan serioago batzuk egiteko ateak zabaltzea ere bai. ◀

«Euskararen aldekotasuna praktikara eraman nahi dugu»

Kike Amonarriz Gorria soziolinguista eta telebista-aurkezle tolosarrak berbaldia eskainiko du martitzenean, 19:00etatik aurrera, Areetako elkartegian. Euskaldunen aktibazioaren gainean berba egingo du; besteak beste, hainbat herritan zabaldutako euskararen aldeko ekimenen berri emango du, tartean, *11 egun euskaraz* egitasmoaz. Amonarrizek ondo baino hobeto ezagutzen du Getxoren ibilbide soziolinguistikoa.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Euskahalduntzeko biderik badugu Getxon? berbaldia eskainiko duzu. Zer da euskahalduntzea?

Euskahalduntzea hitza Korrikari esker gureganatu eta zabaldutako genuen. Izango litzateke euskararen inguruan daukagun egoera ezagutzea, ditugun ahalmenez jabetzea, daukagun erantzukizuna gure egitea eta, horretan oinarrituta, geure burua aktibatzea eta euskararen aldeko urrats praktikoa ematea.

Euskalgintzak eta Udalak gonbidatuta etorriko zara. Ohikoa izaten da horrelako elkarlana?

Euskal Herrian era guztietako egoerak ezagutu ditugu, baina azken urteotan, zorionez, elkarlan hori gero eta ohikoagoa da, denok jabetu garelako elkarlanean eta elkarrekin askoz gehiago dezakegula, aldentuta edo, zer esanik ez, muturtuta baino. Hausnarketa-prozesu sakon xamarrek, egin dituzte erakundeetan eta euskalgintzan. Denok ikusi ditugu orain arteko zenbait dinamikek eragindako mugak eta denok ikusi dugu ere zein ezinbestekoa eta premiazkoa den elkarrekin oinarri sendo batzuk jarrita euskararen aldeko urratsak elkarlanean ematea. Elkarlan hori gero eta herri gehiagotan ari gara ikusten; uste dut datorren urtetik aurrera, jada martxan dagoen Euskal Herri osoari begirako [11 egun euskaraz] egitasmoari esker, horiek ere gero eta ohikoagoak bihurtuko direla. Hala espero dut behintzat.

Getxoko lehenengo ikerketa soziolinguistikoan parte hartu zenuen. Zein egoera topatu zenuen?

Garai hartan, 1994an, Siadeco ikerketa-taldean nabilen lanean; topatu nituen kezka, ilusioa eta interes handia. Getxon euskararen errealitatea benetan zer-nolakoa zen jakin nahi zuten, handik abiatuta plangintza serio bati heldu ahal izateko. Alde horretatik, Getxon aurkitu genuen egoera izan zen euskarak presentzia baino latentzia zuela: bazegoen

“**Batzuek, ahobizi, ahalik eta euskara gehien erabiliko dute; eta, besteak, belarriprest, jasotzeko prest daude**”

euskaldun-kopuru polit bat, 1991ko datuen arabera Getxon euskaldunak %14 ziren; eta euskararen presentzia kalean oso baxua zen oraindik ere, %3koa, haurren artean pittin bat handixeagoa, %4. Euskara entzun zitekeen pittin bat, baina oraindik ere latentzia-egoeran zegoela ondorioztatu genuen. Hala ere, ikusi genuen bazegoela euskararen aldeko jarrera oso zabala, eta bazeudela posibilitateak han zegoen euskaldun-kopuruarekin urrats sendoak emateko.

Zure ustez urrats sendo horiek eman dira?
Uste dut Getxon ere euskararen egoera hobetuz doa-

la, denok gurako genukeen baino motelxeago; seguru asko urratsak ere sendoagoak eman zitezkeen esparru askotan. Baina hobekuntzak ere gertatu dira. Ordutik hona, ia belaunaldi bat pasatu da. 1994an, azterketa egin zenean, D ereduaren zebiltzan Getxoko gazteak %20 ziren, eta B ereduaren, %12. Gaur egun, kopuru horiek irauli egin dira, euskarazko ereduaren nagusitasuna gertatu da, euskaldunen portzentajea ikaragarri handitu da eta euskararen presentzia esango nuke ere askoz ere nabarmenagoa dela, bai antolatzen diren ekintzetan baita esparru desberdinetako erabileran ere, dauzkadan datuen arabera. Iritsi gara puntu batera non jauzi bat eman beharrean gauden, aurrera begira. Gainera, orain badago oinarri sendo bat jauzi kuantitatibo eta kualitatiboak emateko, Getxon ere. Hitzaldia horren gainekoa izango da.

Orain dela urte bi egon zinen Algortan, *Berrikasi eta berrikusi* eztabaida azaltzen; euskalgintzan dezepzio-puntu bat sumatua zenuela esan zenuen. Dezepzio hitza baino gehiago esango nuke ikusten gurea ordura arteko dinamika ekarri gintuela puntu batera non neurri handi batean mugak jotzen ari ginen. Horregatik erabiltzen genuen bidegurutzearen ideia. Argi zegoen, eta denok bat genduzen horretan, euskararen egoera asko hobetu zela azkenengo hamarkadetan, baina ikusten genuen ere aktibazio berri baten beharra gurea aurrera egitekotan. Hainbat datuen arabera, ikusten zen baze-



goela motelaldi edo geldialdi bat hainbat aspektutan, erabilerarekin lotuta. Orduan guk dezepziotik ilusiora eta aktibaziora pasatzeko proposamena egin genuen, eta txosten horretan hainbat oinarri jarri genituen, gure ustez inportanteak zirenak, euskararen inguruko dinamika berritzeko eta berrindartzeko. Hor zeuden hiztun-komunitate emantzipatu bat beharrezkoa zela, diskurtso-multzo koherentea eta berritu bat ere behar genuela, arnagune politikoa alderdien aldetik, motibazio eta bizi-indarra areagotzea ezinbestekoa izango zitzaigula, epe luzeko plangintza eta hizkuntza-politikak sendotu behar zirela, lege-babesa, baliabideak eta erreferentzialtasuna indartzea, eta egitura eta autoritate zientifiko bat ere sortu eta eratzea. Dena, prozesu hau berrindartzeko. Hausnarketa hori leku askotan aurkeztu genuen, ikusi genuen jende askok konpartitu eta ikusten zuela dinamika aldatu eta berrindartu behar zirela, eta analisi hori nire ustez konpartitua izan da eragile soziopolitikoaren aldetik, eta herrietan-eta sumatu genuen, hainbat elkartetan egin genituen aurkezpenetan bazegoela gure proposamenarekin eta gure analisiarekin bat zetorren jarrera. Horrek lagundu du bizi dugun berraktibazio garai honi ekiten.

Neurri horien artean, euskararen «zoru komuna» proposatu zenuten elkarlanerako. Zertan datza?

Euskaldun guztiok eta euskararen normalizazioaren alde lan egiteko prest geundenok sortu behar genituen eroso sentituko ginen esparruak; oinarri-

ko adostasun soziopolitiko batzuetara iritsi behar genuen. Zoru komun horrek eta adostasun horiek oinarritzko printzipioen inguruan izan behar zuten: euskara agenda politikoaren eta edozein erakunderen lehentasunen artera ekartzea; euskararen zeharkotasuna onartzea; aktibazioa eta berraktibazioa; inertzia gainditzeko neurrien beharra, eta abar.

“ Momentu historiko batean gaude. Aprobetxatu behar dugu, euskararen alde eman beharreko urratsak sendoak izateko ”

Elkarlanaren adibide ipini duzu lehen 11 egun euskaraz egitasmoa. Zer da ekimen hori?

Egitasmo horren oinarria da hizkuntza-portaerak aldatzea eta herritarrak aktibatzea, euskararen erabilpenean. Batzuk, ahobizi kontzeptuaren pean, ahalik eta euskara gehien erabiliz, beti lehen hitza euskaraz eginez eta euskara erabil daitekeen kasu guztietan erabiliz. Gero bestee, belarriprest deitu ditugunek, azaltzen dute prestutasuna euskara jasotzeko. Batzuek euskaraz dakite eta bestee ulertu egiten dute. Horren hasiera da norbanakoak aktibatzea. Hortik aurrera, asmoa da Euskal Herrian era guztie-

tako erakunde, elkarte eta enpresetara ere zabaltzea euskararen aldeko aktibazio hori. Metodo berria da, Donostiako Egia auzoan egin zuten lehen esperientzia. Orain hainbat herri, auzo eta ikastetxetan hasi dira horrelakoekin, eta benetan ekimen emankorrak dira, balio dutelako jendea euskahalduntzeko eta euskararen aldekotasuna praktikara eramateko.

Herritarren konpromisoa beharrezkoa da, ezta?

Bai, bai herritarrena baita erakundeena ere. Gainera, elkarlanaren funtsa horretan datza. Horrelako ekimen batek sekulako eragina izan dezan ezinbestekoa eta onuragarria da euskalgintzaren eta erakundeen arteko elkarlana. Orain arte egin den lekuetan frogatu da: lankidetzaren emaitzak nabarmenak eta kuantifikagarriak dira. Hori da proposatzen dugun bidea eta espero dugu Getxon ere bide hori hartzea.

Iñaki Zarraoa alkatea zela, 2005ean, pin-kanpaina bat proposatu zen, euskaldunok elkarren berri errazago izateko. Madrilgo komunikabideek egurra eman zuten. Egoera errepika daiteke?

Horrelakorik gertatzea ez dago gure esku. Bide eraginkor baten aurrean gaude, borondatean oinarritutakoa, eta ez dut ikusten non egon daitekeen eragozpena. Hemen planteatzen dena da norberak bere borondatez erabakitzea euskaraz egin nahi duela edo erabakitzea jasotzeko prest dagoela. Ez zaio inori behartzen euskaraz egitera. Alde horretatik, ez dut ikusten arrazoirik inor kontra jartzeko. Eta inor kontra jartzen bada, benetan esan nahi du euskararen aurrerabidearen eta normalizazioaren aurka dagoela, baina hori haien problema izango litzateke.

Zer atera gura zenuke berbalditik?

Oinarri sendo bat, egitasmoari ahalik eta indarrik gehienarekin heldu ahal izateko. Sumatzen ari gara, herriz herri, egitasmoaren inguruko atxikimendu soziopolitiko handia biltzen ari dela. Gainera, momentu historiko batean gaude eta aukera historiko hau aprobetxatu behar dugu, euskararen alde eman beharreko urratsak ahalik eta sendoenak eta eraginkorrenak izan daitezen.

Zergatik da hain garrantzitsua urratsak ematea?

Bidegurutze batean gaude. Iritsi gara momentu batera non, Getxon ere, ia gazte guztiek euskaraz badakiten edo ulertzeko gai diren, azken mendeetan lehenengo aldiz. Gainera, inkesten arabera, gizartearen gehiengoa alde al moldez euskararen aldeko neurriak hartzearen aldekoa da. Beraz, motibazioaren eta ezagutzaren aldetik, aukera historikoa daukagu euskararen aldeko urrats kuantitatiboak eta kualitatiboak emateko. Lortzen badugu hurrengo belaunaldiak euskara modu nabarmenean gehiago egitea gaur egun baino, normalizazio-prozesua normalizata dauden hizkuntzen norabiderantz jarriko dugu. Aitzitik, euskaraz dakien belaunaldi horrek ez badu euskara nabarmen gehiago erabiliko, etorriko den hurrengoak ikusiko duena da bere gurasoek badakitela euskaraz eta ez dutela egiten, eta, beraz, euskarak ez duela ezertarako balio. Hori da gaur egun Irlandan gaelikoak nozitzen duen egoera. Hurrengo urteak giltzarri izango dira hizkuntzaren etorkizunera begira. Lehenengo aldiz, D ereduan masiboki ikasitako belaunaldia ari zaigu kaleratzen, lan munduan sartzen eta familia berriak sortzen. Hortxe jotzen dugu hurrengo belaunaldiaren etorkizuna. ◀

Historian lehen aldiz, Fadura maila gorenean

Fadura Tenis Klubak bigarren mailako txapelketa irabazi du, horrenbestez, lehenengo mailan izango da taldea datorren denboraldian.

Fadura Tenis Klubak Espainiako 2. mailako Gizonezkoen Taldekako Txapelketa irabazi zuen Alacanten, joan den azaroaren 5ean. Finala Montemar tenis-klubaren instalazioetan jokatu zen; bertan, Ontinyent tenis-klubaren aurka lehia oso estu eta luzea jokatu zuten algortarrek, baina azkenean 4-3 nagusitu zitzaizkien tenislari valentziarrei.

Banakako partidak irabazi zituzten Luis Diego Chávez eta Andoni Vivanco uribekostarrek, 6-7, 7-5 eta 6-4, Chávezen kasuan, eta 6-0, 4-6 eta 7-6, Vivancorenean. Ontinyenteko jokalariek, oster, hiru partidatan nagusitu ziren: Carlos Sánchez Joverrek, Aitor Sanzek eta Alberto Berbegalek garaitu zituzten Iñigo Santos, Jon Sánchez Zabala eta Eric Beci, hurrenez hurren. Hala, banakako norgehiagokak amaituta, Fadura 3-2 galtzen zihoan. Finala ondoren erabaki zen, binakako par-

tida bietan. Izan ere, Fadurak buelta eman zion markagailuari biak irabazita: Luis Diego Chávezek eta Iñigo Santosek mendean hartu zituzten Jordan Correia eta Carlos Sánchez Jover, 6-3 eta 6-4, eta Jon Sánchez Zabalak eta Andoni Vivancok kontu bera lortu zuten, Aitor Sanz eta Alberto Berbegal 7-6 eta 6-4 irabazita.

Garaipen historikoa

Bigarren mailako finala lehenengo mailarako igotze-fasea ere bazenez, Fadura zuzenean igoko da Estatu espainoleko tenis-maila gorenera, aurreneko aldiz historian. Uribekostarrek huts egin izanez gero, beste aukera bat izango lukete, Cercle Sabadellès 1856 taldearen aurkako play-offean; aurtan lehenengo mailako zazpigarren sailkatua izan da talde katalana.

Fadurakoek txapelketaren azken partidaren gainean oroitarazi dute-



Fadurako jokalariek, garaipena ospatzen. © FADURA TENIS KLUBA

nez, «sekula ez dugu ahaztuko final hori, Ontinyenten eta Equalite-Fertero akademiako jokolari denen aurka». Unerik latzena ere gogoan dute: «norgehiagokak 1-3 galtzen genbiltzan eta geratzen zen azken banakako partidatan set bat beherago geunden». Hala ere, «Chávez egoera gaintzeko kapaza izan eta partidatan nagusitu zen, hiru orduz jokatu ostean», oroitarazi dute naren arabera. Hala, Algortako taldea binakakoetan sartu zen, «baina partida biak irabazi beharra geneuzkan», azaldu dute.

Finalerdian, estu

Zortzi ordu pasatxoko lehiaren ostean, 4-3 irabazi zuten. «Lortu genuen irrikatu izan dugun ametsa: lehenengo mailara igotzea», ekarri dute gogora. Modu berean, behingogatik Estatu espainiarreko «zortzi talderik onenen artean» leku bat egin

izana nabarmendu dute: «benetako garaipen historikoa izan da», Fadurako kideek baloratu dutenez.

Horrezkero, Fadurako jokalariek oso pozik daude egindako balentriaz. «Datorren urtean gozatzea tokatuko zaigu», ziurtatu dute. Izan ere, lehenengo mailan teniseko elitearen aurka jokatu dute, eta Rafa Nadal bezalako arerioak izango dituzte.

Finalera sailkatu eta txapelketa irabazi ahal izateko, Fadurak gaintu behar izan zuen Lleida Tenis Kluba finalerdietan. Algortarrek 5-2 emaitzagaz lortu zuten aurrera egitea, baina klubak zehaztu duenez, «emaitza dela eta, badirudi lehia lasaia izan zela baina erabat kontrakoa izan zen». Aurretik, promozio-faserako txartela lortu zuten urriaren 7an eta 8an jokaturako multzokako fasean, Herrialde Katalanetako Lleida, Ontinyent eta Montemar taldeakaz batera. ◀

Jolasetako beteranoen tenis-taldea ere igo da

Zorioneko daude Neguriko Jolaseta kirol-klubeko tenis-taldeko beteranoak. Izan ere, balentria ederra lortu du 60 urtez gorako seiko-teak denboraldi honetan: Espainiako Beteranoen Taldekako Tenis Txapelketako lehenengo mailara igotzea.

Hala, datorren urtean estreinatu-ko dira kategoria gorenean Fernando Urizar, Ramón Feliz de Pablo, Benito Eguren, Jorge Barrie, Jon Barbed eta Octavio Gallastegui taldeko kapitaina, aurtan lortutako emaitzari esker.

Jolasetako jokalariek hiru talde hartu behar izan zituzten mendean, bata bestearen atzean, lehenengo



Sei irabazleen arteko lau. © JOLASETA

mailara igotzeko: Castellóko tenis-kluba, Valentziako Español tenis-kluba eta, azkenik, Zaragozako Stadiun Casablanca kirol-elkartea. ◀

Mutua Madrid Open sariketa, Jolasetan

Bariku eta domeka bitartean, harrobiko tenislari onenak batuko dira Neguriko Jolaseta kirol-klubean, Mutua Madrid Open 16 urtez azpiko sariketan lehiatzeko.

Negurikoa izango da txapelketaren bosgarren edizio honetako bosgarren proba. Irabazleek zuzeneko txartela eskuratuko dute, azken fasera jauzia emateko. Hala, Madrilgo Caja Mágican jokatu dute, 2018ko maiatzaren 10etik 13ra. Aurtan, berriro ere, eskolajazparpenaren edo bullyingaren aurkako mezua zabaltzen dabil txapelketa.

Aurreneko lau proben ostean, Irati Urbaneja Fadura tenis-klubeko joka-



Lehenengo fasean 16 proba egingo dituzte.

laria dabil sailkapeneko hamargarren. Euskadiko banakako eta binakako txapelak irabazi ondoren hasi zen Mutua Madriderako prestatzen. ◀

Mendi-astea, Faduran

Getxoko Itxas Argia mendi-taldeak Mendiaren Nazioarteko Astea antolatuko du, astelehenetik eguenera. Saioak 19:30etik aurrera izango dira, egunero, Fadurako areto nagusian.

Ekimenaren XIX. aldian, protagonistak honako hauek izango dira: Ihintza Elsenaar, Nuria García, Christian Rodríguez eta Jonatan García.

Astea Christian Rodríguezek ireki du. Getxoko Ibilki elkarteak kideak mendizaletasun inklusiboaz egingo du berba. Izan ere, eskarmentua dauka ikusmen-dibertsitate funtzionala duten pertsonakaz mendian. Azken espedizioa ekainean egin zuen, Norvegiako Galdhøpiggen mendiko ton-

torrera (2.469 metro). Hurrengo egunean, martitzenean, Nuria García alpinista gaztelarrak azalduko du zelan heldu zen Himalaiako Cho Oyu mendira (8.201 metro), 31 eguneko «arazoz betetako bidea» bete ondoren.

Eguaztenean izango da euskarazko berbaldi bakarra, Ihintza Elsenaar eskalatzaile gipuzkoarrak eskainiko duena. «Peruko Puscanturpa mendian egindako eskalada» bideoa emateaz gainera, espedizio horren bizipenak kontatuko ditu. Puscanturpan (5.652 metro) beste lau lagunakaz lortu zuen bide berri bat zabaltzea: Puscaj Pucutai (hodeien iruleak, ketsxueraz). Jonatan García barakaldarrak itxiko du zikloa, Annapurnaz berba egiteko. ◀



Ihintza Elsenaar. © AIZKORRI MENDI ELKARTEA

Jolaseta, ezinbestekoa, euskal selekzioarentzat

Joan den azaroaren 5ean amaitu zen Espainiako Autonomien arteko Hockey Txapelketa, 18 urtez azpiko mailan. Euskadiko selekzioak ondo jokatu zuen Valentzian, emakumezkoetan eta gizonezkoetan; hurrenez hurren, laugarren eta hirugarren sailkatu ziren euskal taldeak. Jolasetak ekarpen handia egin zion selekzioari, bertako hiru emakumezko eta bederatzi gizonezko zelairatu baitziren euskal taldeakaz. Neguriko klubaren jokalaria honako hauek izan ziren: Paula Peña, Sandra Villanueva eta Victoria Madariaga; eta Guillermo Elguezabal, Alfonso Smith, Fernando de la Rica, Rafael Vilallonga,



© EUSKAL HOCKEY FEDERAZIOA

Juan Garaizabal, Cosme Galdiz, Juan Petuya, Miguel Casares eta Alvaro Goyoaga. Txapelketa Madrilek irabazi zuen, gizonezkoetan, eta Kataluniak, emakumezkoetan, biek final biak elkarren aurka jokatu. ◀

Eskualdeko zazpi judoek, domina bana, Bizkaikoan

Bilboko Bizkaia frontoian egin zen Bizkaiko Judo Txapelketa senior mailan, joan den azaroaren 5ean. Bertan, Uribe Kostako zazpi judoek eskuratu zuten dominaren bat. Emakumezkoetan, Ane Cacho izan zen onena, 52 kiloz azpiko mailan; 63 kiloz azpiko kategorian, ostera, Erika Cortabitarte bigarren geratu zen. Biak Getxo Judo Klubeko kideak dira. Gizonezkoetan, honako hauek lortu zuten dominaren bat: Jokin Mojok, (urrea, Getxo), Eneko Latxak (zilarra, Getxo), Iñigo Martínezek (brontzea, Sopelako Jundo), Juan Atxak (brontzea, Getxo) eta Mikel Lópezek (zilarra, Erandio). ◀

Orientazio-txangoa egingo du Unben Gorlizko Mendibikek

Gorlizko Mendibike elkarteak orientazio-txangoa egingo du datorren domekan, azaroaren 26an. Ekimena antolatzeko, Unbe ingurua aukeratu dute. Parte-hartzaileek mapa batean zehaztutako hainbat leku bisitatzeko erronka izango dute; puntuak irabaziko dituzte gune bakoitza dela eta. Hala, puntu gehien batuko

dituztenek saria irabaziko dute. Horretarako, beharrezkoa izango da finkatutako lekuetan argazkia ateratzea, egon direla frogatzeko. Izena eman gura dutenek aurretik posta-mezu bat bidali behar izango dute elkartearen posta elektronikora, euren sakelako telefono-zenbakia ipinita. ◀

info+: mendibike@mendibike.net



Mendibike Eguna ere izango da. © MENDIBIKE



Sokatik tireka

JONE
ZARRAGA EGUSKIZA
Herrikoia

Kirolean be Gu-retik Ni-ra pasatzen gabiltza

Miren Amurizaren *Monopoly* iritzi artikulua irakurri nuen Berrian, eta atentzioa emon jausten esaten zuen honek: «'gure aita' barik 'nire aita' esaten duen belaunaldikoak gara gu».

Kirolera ekarri neuen Mirenen espresio hori, eta, bai, ados nau: diru bako Kirolean ere, Gutik Ni-ra pasatzen gabiltzala da nire ustea.

Burura etorri jaten zelako zailtasunak egoten diren gure auzo eta herrietako kirol taldeak eta talde kulturalak osatzeko eta mantentzeko. Gaur egun, asko kostatzen da edozertarako jendea mugitzea talde lanean ibiltzeko. Konpromisoa, adostea, barkatzea, pasatzen uztea, lagunari zama eroaten laguntzea, eta abar luzea eskatzen du taldeak; baina, emon ere emoten du taldeak, askotan hartzen deuen baina askoz gehiago.

Aspaldidanik entzuten gabiz gure jendarte gero eta bakar-tiagoa edo indibidualistagoa iten ari dala. Pentsa leike, gehiengoari, gure inguru oso hurretik aparte dauna leba gitxi doskula, eta geure inguru hurbila be gerorago eta gehiago ixten doa.

Inoiz baino kirol gehiago iten dan belaunaldi honetan, sa-soitsu egotea beharrezkoa dan jendarte honetan eta «Danone figura» eroaten dan jendarte honetan, jo eta *fuego* dabil jendea kirolean, gelditu ezineko jendarte bilakatuz.

Gimnasioak, beterik; edonon topa ahal da jendea korrika, bizikletan, patinetan, igerian, eta abarretan; jendarteak inoiz baino kirol gehiago egiten du, baina diru bako talde kirolaz gabiltzazanean, ze zaila izaten dan taldeak sortzea eta mantentzea. Kirola egitea oso modan dau, baie, talde konpromisoa eskatzen deuen kirola ez da gaur egun eroaten dana.

Kirolean ere ni eta nire zilborra da eroaten dana. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Berangon, Ibilaldi Neurtoa, prest

Sei Herri kultur elkarteak 35. Ibilaldi Neurtoa antolatuko du domekan, azaroaren 19an. Prestatutako ibilbideak Uribe Kosta zeharkatuko du, eta goizean goiz hasiko dira izen-emateak Sei Herri herriko tabernan. Nagusien kasuan 08:15ean izango da, eta txikiek, ostera, 09:00etan egin behar izango dute. Ordu horretan aterako dira helduak, eta txikiak, berriz, ordu erdi geroago. Nagusien ibilbideak 16 kilometroko luzera du, eta, txikienak, 8 kilometrokoa.

Mendi-bueltaren ostean, egitarau zabalaz ospatuko dute 35. urtemuga berezia: bertako elikagaien azoka eta txerria txingarretan erreta egongo dira

12:00etatik aurrera. Ordubete geroago, nagusiek trikiti-poteoa izango dute aukeran Sei Herri hasita, txikiek Nagusien Etxearen ondoko plazan Enaitz pirataren ipuinez gozatzen duten bitartean. Txikiek 14:00etan bazkalduko dute, frontoian, eta ordubete beranduago-edo, nagusien txanda helduko da, musikaz girotuta.

Umeen bazkaria doakoa izango da parte-hartzaileentzat; helduena, ostera, bertan erosi ahal izango da zazpi euroan. Bazkariaren ostean, umeek animaziozko filma ikusi ahal izango dute Berangoeta kultur etxean. Helduen bazkariaren ostean, ostera, sari-banaketa hasiko da. ◀

info+: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com



Ehunka lagunek parte hartu ohi dute Berangoko kirol-hitzorduan.

Madariaga eta Afrikako txirrindularitza

Euskadi Fundazioaren presidente izateari utzi ondoren, Miguel Madariagak segitzen du euskal txirrindularitzaren eta fundazioaren alde behar egiten. Gaur egun, kirol-elkarte horren Pedagogia Gelaren presidentea da. Ardura horretan, elkarlan-hitzarmena sinatu

du Beningo txirrindularitza-federazioagaz. Mendebaldeko Afrikako Estatu horrek 10 milioi biztanle ditu. Halere, 35 txirrindulari baino ez daude federatuta. Romuald Hazoumé Beningo federazioaren presidentea izan zen azaroaren hasieran Madariagagaz hitzarmenaren nondik-norakoak zehazten. Lemoiztarak azaldu duenez, «material apur bat egaz lagundu ahal dugula alde batera utzita, Gelak txirrindularitzaren gainean duen ezagutza interesatzen zaie: formakuntza». ◀

Erecacho oroitarazteko bela-estropada

Ia 50 belaontzik eta 70 nabigatzailek parte hartu zuten Eduardo Erecacho omentzeko estropadan, joan den aste-akabuan. Hala, 17. urtez, Abrako uretan gogorarazi zuten auto-istripuan zendu zen Areetako itsas klubeko kidea. Kirol-atalean, Gabriel Oraák Op-

timist mailan garaipena lortu zuen, sei etapatako lau irabazita, eta beste bietan bigarren geratu ostean. Optimist B kategorian, Aiala Angueira izan zen onena. Bestalde, Laser 4.7 ontzien lehia Andoni Lejarragarentzat izan zen. FEVAn, Cristina Terry eta Nerea Álvarez nagusitu zitzaizkien Alba Ortegari eta Telma Ajari, puntu bakar batengatik. 420 kategorian, Joana eta Peru Abasolok irabazi zuten. Azkenik, Amadeo Torrens eta Imanol Elorrieta Snipe mailan aurren geratu ziren. ◀

HITZALDIA ETA
MUSIKA EMANALDIA
**musikagintza,
euskara,
emakumea.**



**Azaroak 22 Noviembre
20:00**

Azebarri Kultura Elkartea
(Euskal Herria kalea 14-16)

DOAN



Aurten, 12 urtez azpikoek minutu bateko tiraldia egingo dute; 12-14 urte bitartekoek, bi. © ENZ

Estalpeko arraunean izena eman daiteke

Estalpeko Arraunaren Herri-estropada egingo dute abenduaren 2an, Fadurako kiroldegian. Bosgarren aldiz, ehunka arraunlari lehiatuko dira ergometroaren aurka. Getxoko ENZ estalpeko arraun-klubak antolatzen du ekimena lehenengo ediziotik, Getxo Arraun Taldeagaz batera.

Luis Amallobieta ENZko kideak azaldu duenez, probak arrauna bultzatzea bi-latzen du. Hori dela eta, behe mailatakoen parte-hartzea sustatzen dute, «ea euren buruak zirikatuta, arraun-klubetara sartzen diren». Inskripzioak azaroaren 26ra arte egin daitezke. ◀

info+: Remoindoorgetxo.com

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa




SARIA

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Nazioarteko Trikitixa jaialdirako 5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Azaroaren 25eko Nazioarteko Trikitixa Jaialdirako sarrera bikoitza lortu gura baduzu, azaroaren 20a (astelehena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Azaroko saria
Udagoien koloretako bufanda eta txanoa



HIRUKA zale bati esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean. Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

		9			6	7		1
	3							
5			9			2		
4					9		1	6
	2							
9			5	8				
8					3			
1					4		5	
	4			9			7	

Soluzioa

8	2	9	5	6	1	7	4	3
6	9	7	4	8	3	2	1	5
7	2	1	8	9	2	5	6	8
2	8	7	2	8	9	1	9	6
2	6	9	1	7	9	8	2	3
9	1	8	6	3	7	2	5	4
3	9	2	8	2	6	7	1	5
5	8	6	2	1	7	9	3	2
1	7	2	9	5	3	6	8	7

+ Guardiako farmaziak, hilaren 16tik 22ra

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Eguaztenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik egueneko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga etorb., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Martitzenean, 09:00-22:00.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529. Zapatuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egutero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egutero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Astelehenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Barikuan eta domekan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Martitzenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egutero, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; eguteroan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.



Geure buruak besterik ez duenean gura

Suizidioa, isilpeko

Munduan 800.000 pertsona inguruk euren buruaz beste egiten dute urtean. Ezkutuan mantendu ohi den arazoa da; oster, horren berri ematea gomendatzen dute adituek, betiere, modu «arduratsuan».

TESTUA: IKER RINCON MORENO / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Suizidioa, buru-hiltzea edo buru-hilketa norberak bere burua gurata hiltzearen ekintza da. Urteko 800.000 pertsona inguruk beren buruaz beste egiten dute munduan, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) 2017ko abuztuan emandako datuen arabera: «munduan suizidio bat egoten da 40 segundoan behin». Gainera, bere buruaz beste egiten ahalegintzen direnak «askoz ere gehiago» direla ohartarazi du erakundeak. Modu berean, hilketa horietako asko prebenitu egin daitezkeela uste dute adituek. Hala ere, horretarako, jendea kontzientziatu beharra dago; eta hori lortzeko, lehenengo eta behin, gizarte osoaren gaitza den horren berri ematea beharrezkoa da.

Heriotza ez naturalen lehenengo kausa izan zen suizidioa 2015ean espainiar Estatuan; urte horretan, auto-istripuetan hildakoen bikoitza izan ziren buru-hiltzeak: 3.602. Horrek esan gura du eguneko 10 buru-hilketa egon zirela, datu ofizialen arabera. Urte horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan, beren beregi, 168 pertsonak egin zuten beren buruaz beste: 128 gizonek eta 40 emakumek, Espainiako INE Estatistika Institutuak emandako datuen arabera (2015ekoak dira azken datuak); hau da, «asteko 3 suizidio».

EHUko Soziologia irakasle eta Aidatu Euskal Suizidiologia Elkarteko presidentea da Cristina Blanco Fernandez de Valderrama, eta berak ohartarazi due-

nez, «ez genuke esajeratuko zenbateko hori % 10 handiagoa izan zela esango bagenu, ezkutuko suizidioak, zenbatu gabeko hilketak eta 'galdutako' datuak kontuan hartuko bagenitu». Hala, datuek azaleratzen dutenez, EAEko suizidio-tasaren batez-

Gaur egun, heriotza ez naturalen lehenengo kausa da suizidioa; osasun publikoaren arazo larria eta gizarte-fenomenoa da

bestekoa 7,7koa da, 100.000 biztanleko. Ostera, adinaren arabera tasa hori aldakorra dela ohartarazi du Blancok: 15 eta 29 urteen arteko gazteen suizidio-tasa 6,9koa da, 100.000 biztanleko; 30 eta 49 urteen artekoena 9,4koa; 70 urtetik gorakoena, 12,3koa.

Suizidioa: osasun publikoaren arazo larria

Suizidioa osasun publikoaren arazo larria dela dio OMEk: «Fenomeno globala da, munduko herrialde denetan ematen dira buru-hilketak, gizarte aberatsetan zein behartsuetan». Hala ere, buru-hiltzeen zati handi bat eragotz daitekeela baieztatzen du erakundeak; baina, erantzuna eraginkorra izan dadin, «prebentzioko alor anitzeko estrategia integrala» beha-

rezkoa dela uste dute adituek. Blancok akordura ekarri duenez, suizidio asko behin-behineko arazoei amaiera emateko irtenbideak izaten dira. Pertsona batek bere buruaz beste egiteko zuzeneko arrazoiak norberaren sufrimendua izan ohi da, «min izugarria izan behar du norbaitek, sufritzen jarraitu baino, hiltzea gurago duenean». Ezinegon hori askotariko zergatiek eragin dezakete, berbarako arazo sozialek (langabezia, desjabetzeak, abusuak...), arazo familiarrek (dibortzioak, hiltze traumatikoak familian...), osasun mentaleko arazoei edo barne-eraginek. Hala ere, askotan sufrimendu jasanezin hori behin-behinekoa izaten dela dio Blancok: «Denborak aurrera egin ahala, jasangarriagoa izan daiteke min hori, eta laguntzaz, aurrera egin ahal izango luke pertsona horrek». Hala, EHUko irakasleak uste du besteen laguntza izateak eragotz ditzakeela mota horretako heriotzak; gainera, laguntzeko, askotariko alorretan jardunez egin daitekeela dio, berbarako osasun mentalean, hezkuntzan, sare sozialetan, lehen mailako arretan, larrialdietan eta komunikabideetan.

Isilean dagoen gaitza

Mundu osoko hedabideek suizidioen gaineko informazioa ematea baztertzen dute askotan, dei-efektua edo Werther Efektuaren beldurrez. Ostera, OMEk uste du hedabideen papera «oso garrantzitsua» dela heriotza horietaz informatzeko eta horiei aurre egiten laguntzeko, betiere, informazioa «modu arduratsuan» emanez gero, sentsazionalismo eta morbo barik, suizidioa «normalizatu» barik eta arazo bati aurre egiteko irtenbide bat balitz bezala aurkeztu barik, besteak beste. Modu berean, gertaeraren berri hutsa hala egunkari-azalean edo telebista-saio baten



gaitza

hasieran ematea baztertzea gomendatzen dute adituek. Horri denari lotuta, Blancok uste du kasu positiboen berri ematea ere gomendagarria izan daitekeela suizidioen gaitzari aurre egiteko: «errealitate positiboen berri emateak efektu Papagenoa eragin dezake. Hau da, bere buruaz beste egin gura izan baina azkenean egin ez duen eta orain pozik bizi den norbaiten berri ematea eredugarria izan liteke suizidatzeko tendentzia duten pertsona askorentzat». Modu horretan, osasun publikoaren kontrako gaitz hori «iluntasunetik» atera eta mahai-gainean ipini ahal izango litzatekeela uste du soziologoak.

Gizartea kontzientziatzeko beharra

Cristina Blancoren ustez, suizidioen gainean pedagogia egin beharra dago; (jende askok uste duena baino gehiago) arazo hori izan badela azaleratuz, askotariko arrazoiek eraginda ematen direla azalduz eta askotan eragotzi egin daitezkeela jakinaraziz. Izan ere, adierazi duenez, «isiltasunak mina areagotu baino ez du egiten; bai bere buruaz beste egiten ahalegindu den pertsonarengan, bai familiarengan ere, gertaera jazo denean». Dena dela, bizirik dirauten gizon-emakumeak dolu «sakon» batean daudenak bezala hartu behar direla gomendatzen du adituak, «normaltasunera itzultzeko» denbora behar dutela jakinda. «Gainera, errudunik ez dagoela erakustea beharrezkoa da, edonori gerta dakioke hori; baina, ez da isildu behar. Suizidioa gizarte eta osasun publikoaren fenomeno bat da», ebatzi du Blancok. Horretarako, eskoletan erresiliencia indartzeko ikasketak txertatzeko beharra dagoela dio adituak, baita elkarrizketak laguntzekoak eta lagunen artean alerta-zeinuak antzematekoak ere, «ez da errealitatea ezkutatu behar, ezta isildu ere». ◀



«Suizidioen arazoa azaleratu beharra dago»

Suizidioen prebentziorako eta interbentziorako programen alde lan egin gura du Aidatu elkarteak, besteak beste.

Aidatu Euskal Suizidiologiaren Elkarteak buru-hilketen gaineko jardunaldiak antolatu zituen joan den azaroaren 3an eta 4an, Bilbon. Bertan, suizidioa osasun publiko- eta gizarte-arazoa dela azaleratu zuten.

Cristina Blanco Fernandez de Valderrama EHUko Soziologia irakaslea eta Aidatu elkartearen presidentea da. Bere ustez, suizidioa gizartearen tabu «nagusietako» bat da, «arazo intimoa eta pertsonala balitz bezala jorratzen da sarri, eta ezkutuan mantentzea hobeto dela pentsatzen da».

Zelan eta zein helburugaz osatu duzue Aidatu Euskal Suizidiologiaren Elkarteak?

Buru-hilketei aurre egiteko beharra genuen zenbait pertsona elkartu ginen, suizidioen heriotzak eragotz daitezkeela konbentzitu. Hasiera batean hiru pertsona batu ginen; hirurek zelanbaiteko lotura geneukan arazo horrekiko. Ostean, psikiatra bat nigaz kontaktuan ipini zen suizidioen gaineko berbaldi bat emateko, perspektiba bikoitzetik berba egiteko: soziologiaren ikuspegitik eta bizirik dirauen senidearenetik. Ondoren, buru-hilketen gaineko jardunaldi batzuk egitea pentsatu genuen, eta hala egin genuen hilaren 3an eta 4an. Ideia epe luze-rako lana egitea zen; hala, Aidatu osatu genuen.

Zein izango da elkarte horren zeregina?

Batetik, suizidioa gizarte-fenomenoa eta osasun publikoaren arazo bezala ikertzea, horiek etorkizunean prebenitzeko; bestetik, fenomenoa ikusarazi, bere estigmatizazioa murrizte aldera; eta suizidioen prebentziorako eta interbentziorako programen alde lan egitea.

Zelan galaraz daiteke buru-hilketa bat?

Gure helburua da sufrimendu sakon baten eraginez beren buruaz beste egin gura duen jendearen-

gan eragitea. Izan ere, askotan, sufrimendu hori behin-behinekoa da, eta arazo horiei aurre egin dakieke. Hala, arreta espezializatu batez suizidio horiek eragotz daitezke sarritan.

Jendeak pentsatu ohi du suizidio-kasu oso gutxi egon ohi direla, eta egoera pertsonalek eragindakoak direla...

Ez bata, ez bestea. Ideia hori nagusitu da ez delako horretaz berba egiten, eta hori ulergaitza da. Pedagogia egin beharra dago, isiltasunak beren buruaz beste egin gura duten pertsonen eta egin dutenen

“ Askotan, sufrimendua behin-behinekoa da, eta suizidioak eragotz daitezke arreta egokia ipiniz gero ”

familien sufrimendua areagotu baino ez duela egiten. Datuak hor daude, munduan pertsona batek bere buruaz beste egiten du 40 segundoan behin. Bestalde, suizidioa oso pertsonala dela? Ezezkoan nago, kontrakoa dela esango nuke, askotariko zergatiek eraman dezaketelako erabaki hori hartzera. Dena den, suizidioaren benetako zergatia zein den jakin beharra dago; zerk eragiten dion pertsona bati horrenbesteko mina eta sufrimendua bere bizitza kentzera eraman arte. Aurreiritziak daude, baina, ez dago daturik. Gaixotasun bat duten pertsonentzako laguntza badago, zergatik ez zaie suizidatzeko tendentzia duten gizon-emakumeei laguntzen, ahal den heinean? ◀

Sukaldean

Gazian eta gozoan dabilen mokadu kurruskaria, Topan



OSAGAIK:

Pizza-orea, tomate-saltsa, mozzarella-gazta, oreganoa, almendrak, ahuntz-gazta, errukula eta eztia.

TOPA TABERNA

Santa Eugenia kalea, 13. Itzubaltzeta/Romo (Getxo)

Antzara-jokoan jardungo bagenu legez, antzaratik antzarara salto eginda, Erandioko pizzak atzean utzi ditugu, Itzubaltzeta/Romokoak probatzeko. Izan ere, Santa Eugenia kalean dagoen Topa tabernan eguenetik zapatura bi-tartean egiten dituzten pizzak dastatzera gonbidatu gaituzte oraingoan. Dardoetan eta mahai-futboleak jokatzeaz gainera, pintxoz beteriko barra dute tabernan. Hala ere, bertako arduradunek azaldu digutenez, pizzak eta bertan sortzen den giroa dira nabarmenekoak; 15 pizza-mota dauzkate eskuartean. Oraingo barran bakarrik dasta daitezke horiek denak; zati bakoitza, 1,5 euroan. Gainera, eguenetan, prezio hori euro bakar batera merkatu egiten dute, edariren bat

kontsumituz gero, herriko pintxo-potera egokitzen. Arrastiko 19:00etatik 23:00etara ateratzen dituzte pizzak lotu barik eguenetik zapatura, tabernara hurreratzaren diren bezero tripontzi denak asebeteta utzi ahal izateko. Guk zortea izan dugu, zurito bat eskuartean dugula, Topa izeneko mokadutxo bat dastatzeko aukera izan dugu eta. Hori zelan prestatzen dute jakin gura duzue? Sekretua pizza-orean dago, eurak egingakoa baita; fin-fina eta kurruskaria, Italian egiten dituzten horietako modukoa, alegia. Behin orea eginga dagoela, gainerako osagai fresko denak gehitzen dizkiote gainean, errukula eta ezia izan ezik. Jarraian, 7-10 minutuz labean sartzen dute, eta, gero, osagai bi horiek botatzen dituzte denaren gainean. ◀

faceguk



Zer deritzozu Basordan arrain-haztegi bat ipintzeko proiektuari?

PEDRO LARRINAGA

MUNGIA



Proiektua izugarri ona iruditzen zait. Hobe zer edo zer dezentea egitea, tramankulu bat erabili barik izatea baino. Herriko ekonomiarentzat ona izango da: lana ekarriko du, obretan eta gerora.

ROSA MARIA ZUBIRI

LEMOIZ



Niri ondo iruditzen zait egitasmoa; azken egunotan aurkeztu duten arrain-haztegiko proiektu hori hemengo eta inguruko jendearentzat eta ekonomiarentzat oso ona izango delakoan bainago.

RICARDO LOPEZ

LEMOIZ



Ondo deritzot. Basordako zentral nuklearraren instalazioei erabilpenen bat ematea beti izango da interesgarria. Zalentza izpi barik, hobe izango da hori, bertan egin behar zutena baino.

IGOR FERNANDEZ

BERMEO



Ez dakit ondo ingurumena edo herriko negozioak kaltetuko lituzkeen; baina, herriko gehiengoak onartuko eta babestuko balu, niri oso ondo irudituko litzaidake. Uste badute hoberako dela, ondo.

AINHOA MITXELENA

MUNGIA



Basordako kostaldea deseginda dago; badirudi positiboa dela porlanezko eraikintzar hori baliatuta zer edo zer egitea. Baina ez dago informazio nahikorik arrain-haztegia ona denik esateko.

NICOLAS BLANCO

MUNGIA



Lanpostuak sortuko baditu, ondo etorria izan dadila arrain-haztegi-proiektu hori. Gainera, Lemoizko zentralaren guneak gaur egun erakusten duen izaera iluna aldaraziko luke horrek.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua